

Arrasate

P R E S S

1987ko
otsailak 14
351. zenb.

Arrazakeriaren
aurkako
Gazte Astea

Aniztasunean berdin

Hezkuntza pertsonalizatu bat,
ingurugiro libre batean,
baliabide aurreratuenekin,
eta profesional onenekin.

Eman lehentasuna zure etorkizunari

Haur hezkuntza • Lehen hezkuntza • DBH

ARRASATE



la merced
IKASTETXEA

79 20 92

La Merced Taldea (Arrasate • Eibar • Gasteiz • Leioa • Zumarraga)

HIESaren txertoa

Lehen aldiz irratian izaten diren tertulia Lhorietariko batean entzun nuen albiste. HIESari buruz, hitz egitera natorkizue. Egia da, hasiera batean ez nuela ondo ulertu esandakoa, baina gero beste komunikabideetan gaiak izan duen oihartzuna ikusita, artikulu honen bidez guztia plazaratzera animatu nintzen.



Rosa Mondragon

Dirudienez, malariaren kontrako txertoaren patentea gizarteari dohainik eskaini dion Patarroyo jaunak pasa den astean eginiko adierazpen batzuetan,

“Esandakoaren arabera, ez da gehiegi ikertu prebentzio mailan eta bai, ordea, medikamentu eta botika berrien asmakuntzan”

ziurtatu omen du HIESaren kontrako bakuna edo txertoa ez dela oraindik garatu, farmazia enpresa handiek ez dutelako horretan interesik. Esandakoaren arabera, ez da gehiegi ikertu prebentzio mailan eta bai, ordea, medikamentu eta botika berrien asmakuntzan.

Patarroyok dio gaixoen bizimodua luzatzeko asmatzen diren botika berri eta ugari hauen salmentarekin dirutza izugarria jasotzen dutela farmazia

enpresek eta, HIESaren kontrako bakuna asmatzen bada, berriz, gaixotasuna desagertu egingo litzakeela eta berarekin, gaur egun

ateratzen diren etekinak.

Ahoa zabalik utzi ninduen albiste honek, laister izan zuen erantzuna. Asteburuan kaleratutako ale berezi batean eta letra handiekin, ezagutzera ematen zitzaigun HIESaren kontrako txertoaren asmakuntza gaur egun meta edo helburua dela osasun ministeritza, fundazio eta lanean ari diren enpresa aditu desberdinentzat. Gainera, gaian nahiko aurreratuta daudela komentatzen du birologo batek.

Albisteak, beraz, bi alde izan ditu eta biak piskat ezagututa, batek ez daki zein sinistu.

Atera ditzala bakoitzak ondorioak.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-do Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egues. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitiin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 79 02 28). **Disenatza:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Elzeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose Man Astigarra, Jesus Larrañaga, Matilde Salnz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kofi, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketaren arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati). **ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldi-karriaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.**

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturaren sailaren laguntza

351. zenbaki honetan

1997ko otailaren 14an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen.....	10/12	Kulturaren txokoa.....	28/31
Irakurlea idazle.....	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza.....	32/33
Inkesta.....	7	Asteko gaia.....	17/19	Soroik soro.....	35
Astearen erreposoa.....	9	Kirolak jokoan.....	22/25	Foto zaharra.....	38

Ikuspegia

Rosa Mondragon.....3

Euren ikuspuntutik

Julia Monge.....8

Hogeita hamar galderatan

Ramon Jauregi.....34

Aurrez aurre

Maite Aristegi.....26/27

Asteko gaia


Arrazakeriaren aurkako

Gazte Astea.....17/19

Haratuzteak 97

Argazki

onenak.....13/15



Nork esan dizu ez zarela arrazista? galdera aste osorako



14

ostirala

■ ZINEA

Sleepers Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ MANIFESTAZIOA

Herri Batasunak deituta, manifestazioa 7.30etan Herriko Plazatik irtenda.

■ HITZALDIA

Emakume Baserritarren elkarteak (EBEL) antolatuta, hitzaldia izango da Uribarriko Erguin eskolan arratsaldeko 3.30etan.

■ ZINEA

Alai zineman 5etan. 7.30etan eta 10etan.

■ ROCK KONTZERTUA

“Brutal Melody” eta “Koma” taldeen kontzertua Gaztetxean 9.30etan.

15

larunbata

■ ZINEA

Napoleon, el perrito valiente 5etan Alai zineman. *Sleepers* 7.30etan eta 10.15etan.

16

igandea

■ ZINEA

Napoleon, el perrito valiente 5etan Alai zineman. *Sleepers* 7.30etan eta 10.15etan.

17

astelehena

■ ZINEA

Sleepers Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ HITZALDIA

Emakume Baserritarren Elkarteak (EBEL) antolatuta, hitzaldia izango da udaltxeko aretoan arratsaldeko 7etan. Gaiak: Baserriko emakumea eta aseguru soziala, baserriko emakumearen lanaren errekonozimendu ekonomikoa eta baserrian bizi diren arteko elkarbizitza hobetzeko bideak.

■ BILERA INFORMATIBOA

HEZIBIDEk antolatuta, Derrigorrezko Hezkuntzaren matrikulazioari buruzko bilera informatiboa Ferixalekuan 17.45etan euskaraz eta 19.00tan erdaraz.

■ HBren BATZARRA

HBren batzarra Arrano elkartearen arratsaldeko 7etan. Gaiak: Azken egunetako gertakariak eta HBren dinamika.

18

asteartea

■ ZINEA

Sleepers Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ ARRAZAKERIAREN AURKAKO GAZTE ASTEA

Ceutako etorkinei buruzko diaporama emanaldia. Bio-na tabernan arratsaldeko 8etan.

■ HITZALDIA

San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta, “2 urte ditut, zer aurkituko dut ikastolan?” gaiari buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan Musakolako oktogonoetako ikastolan. 2-3 urteko gurasoei zuzenduta..

19

asteazkena

■ ARRAZAKERIAREN AURKAKO GAZTE ASTEA

Arrazakeriari buruzko irratsaioa Arrasate Irratian, gaueko 9etan.

SOS Arrazakeriaren elkarrikerria ATBn, gaueko 9.30etan.

Bideo Emanaldia Gaztetxean, gaueko 10etan.

■ HITZALDIA

San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta, “2 urte ditut, zer aurkituko dut ikastolan?” gaiari buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan Olarteko ikastolan.. 2-3 urteko gurasoei zuzenduta..

20

osteguna

■ ZINE KLUBA

Underground Amaia antzokian gaueko 9.30etan.

■ SEXUALITATE HITZALDIA

Informazio eta Orientazio Sexualeko Bulegoak antolatuta eta 3. adinekoei bereziki zuzenduta, sexualitateari buruzko hitzaldia Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Gaiak: Analisi soziologikoa eta bizitza sexualean eragiten duten faktoreak, nagusi den eredu sexuala eta eredu horren ondorioak zahartzaroan. Hizlaria: Carlos Menendez de Miguel.

■ BATZAR OROKORRA

San Viator ikastolaren batzar orokorra arratsaldeko 6.15etan San Viatorren.

■ ARRAZAKERIAREN AURKAKO GAZTE ASTEA

Ceutako etorkinei buruzko diaporama. Gure Leku tabernan, arratsaldeko 8etan.

■ HITZALDIA

San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta, “2 urte ditut, zer aurkituko dut ikastolan?” gaiari buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan Uribarriko Jokin Zaitegi ikastolan.. 2-3 urteko gurasoei zuzenduta.

■ **EL FLORIDO PENSIL ANTZERKIA**

Arrasateko Udalaren eskutik Tanttaka antzerki taldearen *El florido pensil* antzerki obra ikusi ahal izango da otsailaren 22an eta 23an gaueko 10.30etan Amaia antzokian. Sarrera 1.000 ptakoa da, Gazte Txartelarekin 800ekoa.

■ **ESKULAN IKASTAROA**

Ekin emakume taldearen eskutik, eskulan ikastaroa asteazkenetan bi ordu desberdinetan: 3.30etan eta 6etan. Izenematea: 77 12 28 telefonoan.

■ **AUTODEFENTSA IKASTAROA**

Udaletxeko Emakume Sailak autodefentsa ikastaroa antolatu du. Ikastaroa martxoaren 4an hasi eta 20an amaituko litzateke. Orduategia: astearteetan eta ostegunetan 5.30etatik 8ak arte. Tokia: Kiroldegian. Izen emateko 79 41 39 telefonoa deitu.

■ **ARGIZTAPEN IKASTAROA**

Bergarako Islada Bideo Tailerrak argiztapen ikastaroa antolatu du martxoaren 3tik 14ra. Eskolak arratsaldeko 5etatik 9ak arte izango lirateke. Emaleak: Xabi Lozano, Iñaki Irastorza, Koldo Remiro eta Txema Areizaga. Ikastaroko gaiak, besteak beste, begien eta kamararen arteko desberdintasunak, argi kantitatea, foko motak, egun argiaren tratamendua eta kamarendako filtroak. Matrikula

15.000 pta. Izenematea eta informazioa 77 91 58 telefonoan.

■ **MARTXOAK 8 KARTEL LEHIAKETA**

Emakume sailak martxoaren 8rako kartel lehiaketa antolatu du. Kartelen neurriak gehienez 50x70 zentimetrokoak izan beharko dira eta teknika librea da. Kartelek derrigorrez "Martxoak 8: 365 egun" testua eraman beharko dute eta baita Emakume Sailaren logotipoa. Kartelak otsailaren 18an baino lehen bidali behar dira Udaletxera,

bertako Emakume Sailera eta egun berean bilduko da epaimahaia irabazlea aukeratzeko. Saridunak 50.000 pta. etxeratuko ditu.

■ **ARRAZAKERIAREN AURKAKO GAZTE ASTEA**

Datorren astean zehar ekintza ugari izango da Arrazakeriaren aurkako Gazte Astearen. Ostiralean arratsaldeko 7etan diaporama egongo da San Andreseko Gazte Txokoa; 22an beste hainbeste Musakolako Gazte Txokoa eta 23an, igandean, arrazakeriaren aurkako

jai Sebero Altuben. Arratsaldeko 4etan hasiko da jaialdia musika eta dantzekin. Bestalde, aste osoan zehar argazki eta mural erakusketa egongo da Udaletxeko arkupetan, hitzaldiak ikastetxeetan eta mural bat margotuko da kalean.

■ **ARGAZKI ERAKUSKETA**

IKARUS ala delta eta parapente taldearen 10. urteurrena dela eta, argazki erakusketa antolatu dute Harresi Aretoan otsailaren 17tik 23ra arte.



■ **MENDI SOROSPEN IKASTAROA**

Euskal Mendizale Elkarteak eta Leintz Bailarako mendi elkarteek antolatua, mendi sorospen eta medikuntza ikastaroa egingo da apirilean zehar Monterronen. Ikastaroa apirilaren 7, 9, 14, 16, 17, 21, 23, 24, 28 eta 29an burutuko da arratsaldeko 7.30etatik 9.30ak arte. Izenematea otsailaren 18, 19, 25 eta 26an eta martxoaren 4an eta 5ean egin daiteke Besaideren egoitzan 7.30etatik 8.30ak arte. Prezioa: federatuak 3.000 pta, ez federatuak 4.000.

Izenematea: Besaide.
Prezioa: 3.000/4.000 pta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 14

- Gaueko 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Gauez: Camacho, Bergara.

Larunbata 15

- Gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Gauez: Puy, Bergara.

Igandea 16

- Gauez: Corcuera, Musakola.

Astelehena 17

- Gauez: Irizar, Erguin.

Asteartea 18

- Gauez: Amezuza, Santamaina.

Asteazkena 19

- Gauez: Ruiz, Maala.

Osteguna 20

- Gauez: Morales, San Andres.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatoria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
-------------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
--------------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
Onati	77 12 64
Onati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
----------------------------------	----------

Udalzaingoa

Onati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
--------------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.	79 78 44
.	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaraia jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
---------------------	----------

Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
---------------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
----------------------------	----------

HERIOTZA

Heriotza ez dago soilik gorputzak arnasa hartzeari lagatzen dionean, beste heriotz mota asko dago; gogoren heriotza (hilketa), askatasunaren heriotza, herri baten heriotza. Eta hemen Euskadin hildako asko daude, eguneroko heriotz partzialak baina heriotzak. Hiltzen gaituzte eguneroko dendara joan eta euskara ez jakitearen aitzakipean behartzen gaituzte gure barranean dagoen gure nor euskalduna hiltzera, guri nor erdaldun artifiziala, eta, sustraiekiko arrotza, gaineratzerakoan; hiltzen gaituzte administratziara zuzentzen garenean euskal nortasuna askatasunez ezin dugunean erabili; hiltzen gaituzte polizi eta ertzainei (gehienak) ekinez euskaraz egiten diegulako grina haserreko erantzun gisa jasotzen dugunean; urko erdaldunak hiltzen gaitu, nagitasuna izkutu, denbora faltaren aitzakia darabilenean euskara ez ikasteko; hiltzen gaituzte guru, euskal elebidunoi, erdal elebakarra itxiak deitzen digutenean, ez denean "intoleranteak"; hiltzen gaituzte gure aldarrikapena haserrez kanporatzen denean bortxatzaile deitzen digutenean; hiltzen gaituzte "eroso" bizitzearren dena erdaraz nahi dutenak; hiltzen gaitu edukazioaren izenean (ez heziketarenean) euskaraz egin dezagun gustoko ez duenak; hiltzen gaituzte euskal grina "gehiegizkoa" izateagatik, espioitza txipen bitartez an-

tzemanda, lana ematen ez digutenean enpresarioek jasotzen duten azpidiruarengatik; hiltzen gaituzte euskal (euskal?) gobernuan euskara, izuaren beldurrez, alde batera uzten dutenean; hiltzen arabatar zein nafar tar gehienoi; hiltzen gaituzte Iparraldean euskarari ofizialtasuna ukatzen; eta hiltzen gaitu konstituzioak euskal elebakarrak ilegalak direla dioenean; hiltzen gaituzte euskal arazoa ignoratzerakoan, beraien buruak ezerasokor kontsideratzerakoan e.a. Beraz, euskaldunok gaztelar inperioaren bortxaz gailtzen zanean badakigu zertaz gailtzen, arren". Fontcalent (Alakante).

Jon Otero Uribarren

METALGINTZAKO EKIN ELKARTASUNEAN OTSAILAREN 14an GREBALDIA

Euskal Autonomi Erkidegoko metalgintzako langileek, taula errebindikatzaile zabal baten defentsan, besteak beste, lanaldian 11 ordu murriztea, soldaten % 4,7 igotzea, ordu extrak kentzea...; grebaldi batzuei hasiera eman diete.

Lehenengo deialdiak kooperatibetatik ez zuen inolako atxikimendurik jaso, orain berdin ez suertatzearen aldekoak gara. Langile unibertsua osatzen dugun kooperatibetako nahiz ohiko enpresetako langileok poztasun eta nahigabe antzerakoak ditugu

amankomunean. Txiroak jaio izatearren gaurko gurutzea denok daramagu: langabezia, eta ondorioz, soldatarik eza.

Langabeziaren zigorra hain bortizki softritzen ari garen garai honetan gure enpresetan sartzen diren ordu extrak kontrolatzea hain zaila egitea oso gogorra da. Langabezi estrukturala jeisteko bidean, lanaldiak murrizteko borrokan ugazaberiaren aurka gure indarrak ez batzea ere, konpreni ezin da.

Egia da ordu extrak desagertu eta lanaldi orduak modu garrantzitsuan jeisteak ez lukeela, nahiz erabat arindu, langabeziaren arazoa konponduko. Horrexegatik pertsona bakoitzak gizakia izatearren, lanpostua izan edo ez, gutxieneko soldata jasotzea gure borrokaren helburu zuzena izan behar du. Europako lurralde batzuetan garai batean lortu izan den helburu hau langileen iturburu eta antsia izan behar litzateke. Baina... oraindik zein urrutit gauden!

Elkartasuna eta inplikazioa dira tresnak. Metalgintzakoek lortzen dituzten lanaldi murrizketei guk onura ateratzen dizkiegu, atxiki gaitzen borrokara. MCC (Mondragón Corporación Corporativa)k ohiko enpresen jardueren ildotik gero eta zuzenago jarraitzen du, beraz, besteen burutik ikas dezagun zer datorkigun.

Mila Larrañaga,
LANKIDEAK taldeko partaidea

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerías, 11 Tel.: 79 10 95
ARRASATE

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Garraiolarien grebarekin neurri berezirik hartu duzu?



Amelia Casas
Etxekoandrea
(65 urte)

Ez dut janari gehiago erosi, ez gara gosez hilko eta!




Jabier Urrutia
Jubilatua
(56 urte)

Badakit janari batzuk falta direna baina nik ez dut aparteko neurririk hartu.



Lurdes Ronco
Etxekoandrea
(38 urte)

Ez, eta gainera uste dut era horretan elkartasuna erakusten diegula garraiolarietara.




Joseba Kabue
Langilea
(24 urte)

Badaezpada goraino bete dut autoaren depositoa, baina besterik ez.



Maria Pilar Collantes
Sukaldaria
(48 urte)

Momentuz ez, eta hori jabetzea dudala! Esaten dutenez astelehenerako dena konponduta egongo da.



Josu Ayastui
Ikaslea
(25 urte)

Bai, kotxearen depositoa bete dut. Janariaz ama arduratzen da, eta ez dakit gehiago erosi duen.



Aurea Azkoaga
Etxekoandrea
(66 urte)

Senarra Eroskira joan zen esnetan eta ezer barik bueltatu zen, baina lehendik ere esnea bagenuenez ez naiz larritu.



Miguel Agirre
Langilea
(38 urte)

Neuk ez. Baserritarra naiz eta nahikoa esne eta genero daukagu.

KONTSULTA BERRIA!

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI
REUMATOLOGIA

LAGUN ARO

Erdiko kale, 22-1. • Tel.: 79 72 16 • ARRASATE



Erakusketa:
Araba Ibilbidea, 36
Tel.: 79 07 62 / 71 63 95
909-48 36 18
ARETXABALETA

OLTZA
Dekorazioa Egurrean
EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak • Eta abar
MATERIALEN
SALMENTA

ZABALDU
BERRIA!

USTEAK USTE

Garraioak eta buruaskitasuna

Egunak joan egunak etorri aste osoan zehar ikusi ditut garraiolariak bide bazterrean, gau eta egun sua piztuta hotzari aurre egiteko, kamioi handiak ertzeetan aparkatuta, bideari so eskirol harrapaketan.

Egoerak alarma piztu du biztanlerian. Generoa gutxituz joan da dendetan, denok norberaren barruan daramagun akapara-tzaileari bidea ireki eta gero. Hiperrean bertan, egoera igarri igarrian. Izan ere, serio hartzen badute, eta ematen du horrela hartu dutela, garraiolariak gizarte osoa blokea dezakete. Argi geratu zen hori, orain hilabete batzuk garraiolari europearrek greba egin zutenean.

Bizitza modernoaren eraginez, kaletarrok jota geratzeko zorian gauden honetan, aspaldiko baserriaren beharrez konturatu. **Buruaskitasuna du baserriak bere alde, eta laguntza behar denean, auzolana. Zenbat arrimatuko ziren egun hauetan baserrietara esne, arrautza, barazki edo okela eske?**

Beno, bukatu eta gasolindegiko ilara noa segituan, erregaia bukatu aurretik.

Beñardo Kortabarria



Informa zaitez sexualitatea zeure egiteko

Julia Monge

Sexualitate Bulegoa anti-konzeptioari buruzko kanpaina egiten ari da. Gaia ez da berria, baina bai beharrezkoa, eta gazteak animatzeaz gain, erreflexio batzuk egin nahi genituzke:

- Nahi gabeko haurdunaldiak oraindik arazo larria dira, batez ere gazteen artean.

Ezjakintasunak, baliabideen faltak, norberari ez zaio la gertatuko pentsatuz arriskatzeko, gizonetako askok pre-serbatiboa jartzeko hartzen duten aurkako jarrerak... eragin handia dute emakumezkoek nahi ez duten zerbaiti aurre egiteko orduan.

- Norberak, egoeraren, adinaren, eta prebenitu nahi duenaren arabera, antikonzeptibo bat erabiltzeko aukera egin beharko luke. Garbi izan behar dugu orain urte batzuk emakumezkoen ardura nagusia haurdun ez gertatzea izaten zela, baina gaur bada beste bat, zabalagoa eta denoi era berdinean eraso egiten diguna, HIESa.

- Pertsona bakoitzak (gizonetako zein emakumezko) nahi duen sexu harreman

motaren berri izan beharko du, eta ondorioz arduraz jokatu.

Abortoa eta ondorengo eguneko pilula

- Zer egin egindakoak egin arren emakume bat haurdun geratzen denean eta ez duenean haurra ekarri nahi?

Guretzat, desiratzen ez den haurdunaldiaren aurrean, betidanik abortoa emakume guztien eskubidea izan da. Uste dugu onena ekiditzea dela (horretarako onena informazioa da, aprobeitza ezazu kanpaina hau) eta ezin da antikonzeptiboaren barruan sartu, baina emakuren batek eskatzen duen bitartean, guk errei-bindikatu egingo dugu.

- Zer da ondorengo egu-

neko pilula?

Batzutan zerbaitek huts egiten du: kondoi bat apurtzen da, pilulak ahaztu, bortxaketa... Kasu horietarako ondorengo 24 orduetan bada haurdunaldia ekiditzen duen tratamendu bat (medikuak jarriko du neurria). Aurreko puntuan bezala, garbi izan behar dugu ez dela antikonzeptibo bat, baizik eta une jakin batean erabil daitekeen alternatiba bat.

Sexualitatea gurea den zerbait bezala erabiltzea, estereotipo matxista barik plazerre errebindikatzea, harreman zabal eta aske batzuek gozatzea, penetrazioari aparteko garrantzia eman barik harreman mota zabaltzea... berdintasunean oinarritutako harremanak aurrera eramateko modu desberdinak izan daitezke. Bide horretan gizonetako eta emakumezkoen arduratsu jokatu beharra daukagu eta mendeetan zehar ukatu zaigun zerbaiten aurrerapausuak ematen saiatu beharra.

Informazioa da abiapuntu onena. ■

Julia Monge, Emakumeen Asanblada

“
Gizonetako eta emakumezkoen arduratsu jokatu beharra daukagu
”

astea bi hitzetan

■ **Eduardo Mancebo, "Portu" hil**

Eduardo Mancebo, *Portu*, joan den ostiral goizean hilda aurkitu zuten familiak Ferrerías kallean duen etxe zahar batean. Bere aitak aurkitu zuen 33 urteko semearen gorpua, eta jarraian Zumarragako eritexera eraman zuten autopsia egin eta zergatik hil zen jakiteko. Bihar, zapatuan, goizeko 11etan Besaiden, eta ondoren Lekeition zabalduko dira *Porturen* errauntsak.

Domeka arratsaldean, bestalde, Arrasateko musika talde batzuk omenaldia egin zioten Monterronen *Rip* musika taldeko partaide izandakoari. Musika taldeez gain, dantzariak eta bertsolariak ere

parte hartu zuten..

■ **Gesalibarko gaztea istripuz hil**

Joan den ostiral gauean Pako Hernandez Martin, Gesalibarko auzoko bizilaguna hil zen moto istripuz. 30 urteko gazteak Valladoliden izan zuen istripua, Salamanca auzora zihoala astebe-kaera pasatzera. Gaztearen aldeko hileta elizkizuna Salamancan egin zen astelehenean, eta gurasoak hangoak direnez bertan lurperatu dute.

Auzokidearen heriotzak beltzez jantzi zituen Santa Ageda jaiak, eta antolatutako ekintza gehienak aurrera atera ziren arren, zapatuko rock kontzertua bertan behera geratu zen.

■ **Bi manifestazio zapatuan**

Jose Mari Aranzamendi presoaren heriotza salatze-ko, Gestorak deituta zapatuan bi manifestazio egin ziren: lehena iluntzean eta bigarrena gauean. Gauekoan parte hartu zuten manifestari batzuk play-back jaialdira joan eta ikuskizuna eten ondoren, protesta ekintzan parte hartzera gonbidatu zituzten ikusleak. Lagun batzuk irten egin zuten baina gehienak geratu. Jaialdia hasi baino lehenago, partaideek botazioa egin zuten ikuskizuna egin ala ez erabakitzeke eta gehiengoa egitearen alde azaldu zen.

Zapatu gauean, bestalde, erdialdeko taberna gehienak itxita egon ziren, eta gau osoan zehar ertzain ugari izan zen kalean.



KONTZENTRAZIO ISILA

Martitzen iluntzean dantzaldia eten zen Herriko Plazan, eta tarte batez Garraisi Isilak deitutako kontzentrazioan parte hartu zuen hainbat lagunek. Azken egunetan atentatuz hildako pertsonen heriotza salatzea izan zen kontzentrazio isilaren helburua. Ohi moduan borobil bat osatuz egin zen protesta ekintza.

“ Ezusteko handia hartu nuen entrenatzaileak titular izango nintzela esan zidanean. Denboraldia luzea da eta aukera baten zain nengoan. Igandean etorri zen aukera hori, eta badut pozarren egoteko arrazoirik. Aukerak aprobetxatzen saiatu naiz eta ea hemendik aurrera entrenatzaileak eman didan konfiantzari eusten saiatuko naiz.

(...)

Duela bi denboraldi hirugarren mailan ari nintzen jokatzeko eta igandean lehen mailan debutatu nuen. Salto itzela bezain azkarra izan da niretzat. Edozein kasutan, pozik nago eta ea etorkizunean ere gauzak orain arte bezala ateratzen zaizkidan”.

IMANOL ETXEBERRIA

Euskaldunon Egunkaria
1997-2-11,

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

**IBARRA
Garajea S.L.**



**EBRO
NISSAN**

*Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua*

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Etkez-etxeko zerbitzuak irtenbiderik ez oraingoz

Etkez-etxeko langileen arazoari irtenbidea emateko aurreira eramaten ari zen negoziaketak bertan behera utzi ditu LABek. Sindikatu horrek bilerara izan zuen Goizargirekin Bazaineko langile gehienak Goizargin lanean hasteko aukera aztertzeko. LABeko J.L. Loidik azaldu bezala, negoziaketa aurreratu samar zegoenean CCOO sindikatuak eskua sartu eta guztia zapuztu du. Loidiren esanetan, "langileen interesei begiratu beharrean, sindikatuaren interesei begiratu die CCOOek. Akordioa ona izan zitekeen eta CCOOek jakingo du zergatik egin duen egindakoa".

CCOOeko Juan Ramon Garairen ustez, "Bazaineko langileak sindikatu desberdinetan afiliatuta daudenez, LABek ezin du bakarka negoziatu". Garairen berbetan, sindikatu guztiek dute zerbait esateko, eta eurek ez dute ezer zapuztu. CCOOen arabera, Udalarari eskatu behar zaio Goizargirekin duen kontratua bertan behera utzi dezala, eta lehiaketa berria deitu lehengo langileen eskubideak kontuan hartuta. J.R. Garairen ustez, hori lortzeko mobilizazioak egin behar dira.

Hildakoak

- Gabriela Delgado Garcia. Otsailaren 2an. 92 urte.
- Micaela Sanchez Garcia. 4ean. 84 urte.
- Angel Diaz Santamaria. 6an. 55 urte.
- Eduardo Mancebo Roa. 6an. 33 urte.

Eragin nabarmena izan du kamioilarien grebak Arrasaten

Garraiolarien greba hasi zenetik kamioiak Epele eta Etxezarreta inguruko bide bazterrean geratuz joan dira eta asteazkenean, esaterako, 50 kamioi zeuden. Gehienak inguruko kamioilariak izan arren, badago karga uztera etorri eta bide batez Arrasaten greba egiten geratu den Murtziako kamioilaririk ere.

Kamioilariak gau eta egun egoten dira bide bazterrean, eta lehenengo egunetan batez ere kamioiak geratzen zituzten. Kamioilariak esan bezala, eurekin gelditzera gonbidatzeko geratzen zituzten kamioiak, baina ez ei zuten inor behartzen. Deba Garaian 3.800 kamioilari dago gutxi gorabehera.

Garraiolarien lanuztearen



Kamioilariak gau eta egun daude bide bazterrean.

ondorioak bizkor hasi ziren somatzen: gasolindegietanilara luzeak auto gidariak kotxea erregaiez bete nahi zutelako, janari dendatan elikagai falta eta lantegi batzuk, Fagorreko kooperatiba batzuk esatera-

ko, produkzioa geratu behar izan zuten. Beste batzuk, berriz, banaketa egiteko edo lehengaiak jasotzeko arazoak izan zituzten. Horregatik, Fagor Ederlanek pieza batzuk helikopteroz ekarri zituen.

Anbulategiko bi langileren aldeko mobilizazioa sindikatuen eskutik

Sindikatuak deituta, asteartean protesta ekintza egin zen ambulategi aurrean. Azken urteetan ambulategian lanean ibili diren bi langileri kon-

tratua bukatzen zaiela jakinarazi zaielako egin zen protesta ekintza.

Sindikatuak azaldu zuten, epaitegian emandako

epaiak esaten du bi langile horiei kontratu finkoa egin behar zaiela, eta horregatik, ez dute onartzen Osakidetzaen jarrera. Osakidetza lehiaketa publikoa deitu zuen, eta lehiaketa egindakoan beste bi langileri eman dizkiete lanpostu horiek. Sindikatuen ustez, kaleratu nahi diren bi langileek lanean jarraitzeko eskubide osoa dute, eta lehiaketa atera dutenei Osakidetza beste lanpostu bana eman diezaike. Protesta ekintza bidez Osakidetza pertsonal zuzendariarekin hitz egitea lortu zuten, eta asteen bi alde arteko elkarriketekin hasita hitzartu zen.

ROSARIO AMABIRJINA ANBULATORIOA
MBULATORIO VIRGEN DEL ROSARIO

DEBA GARAIO HOSPITALEKO KONTSU
CONSULTAS EXTERNAS HOSPITAL ALTO



Bi langileei lanpostu finkoa egitearen alde azaldu ziren sindikatuak.

ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOAK

GURE ETORKIZUNA

2
urtetik
hasita...



*Dohaineko hezkuntza, kalitatezkoa,
integratzailea eta euskalduna.*

Haur Hezkuntza (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

Ereduak: "D" eta
Murgiltze

Irakaskuntza euskalduna.

**Ingelesa haur hezkuntzatik
hasita.**

Irakaslego espezializatua

- Musika
- Soinketa
- Ingelesa

**Entzumena eta hizkuntza.
Pedagogi terapeutikoa.**

Zerbitzuak

- Jangela
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Jolastoki egokiak

Gurasoen partehartze zuzena.

Informazio gehiagorako:

**Matrikula
epea
otsailaren
17tik 28ra
arte**



S. Andres: 79 00 44



Erguin: 79 77 74

**MUSAKOLA
HERRI ESKOLA**

Musakola: 79 04 49

EBa joango da, baina gainontzeko alderdiekin zalantza dago

Mahai Nazionaleko kideen espetxeratzea salatzen ezohizko plenoa

Gaur, arratsaldeko 7etan, ezohizko plenoa deituta dago gai bakarria tratatzeko: HBk jarritako mozioa. Mahai Nazionaleko kideen espetxeratzea salatu, eta kide guztiak aske utz ditzatela eskatzeko aurkeztu du ezker abertzaleak mozioa. Horrez gain, gatazkaren konponketa elkarriketaren eta E.H.aren esku-bideen onarpenaren bidez etorriko dela esaten da. Horregatik, mozioan espainiar estatuari errepresioa baztertu eta elkarriketaren bideari ekin diezaiola eskatzen zaio.

Arrasateko Herri Batasunaren ustez, bakerako aurkeztu den proposamen bakarra, Alternatiba Demokratikoa, defendatzeagatik espetxeratuak izaten ari dira.



Urrian gertatu zena errepikatuz, baliteke alderdi batzuk plenoa ez joatea.

Mozioan esaten denez, jende guztiak askatasuna izan behar du bere ideia politikoa defendatzeko, eta hori egiteagatik inor ez da errepre-saliatua izan behar.

ZALANTZAK GAINONTZEKO ALDERDIEKIN

Albisteaz idazterako orduan, plenoa joateko asmoa duela eta mozioko lau puntuak onartuko dituela jakinarazi zuen

Ezker Batuak. Horrez gain, idatzi bat irakurriko dute azken egunotako atentatuak salatzen. Gainontzeko alderdiek, hala ere, erabaki barik zuten joan ala ez, baina alkatea atxilotu zutenean gertatu zena gogora ekarri, baliteke gainontzeko alderdiak gaurko plenoa ez joatea. Iazko urrian alkatea atxilotu izana salatzen adierazpen askatasunaren alde mozioa aurkeztu zuen HBk baina EAJko, PSE-EEko, EAKo eta PPko zinegotziak ez ziren plenoa joan. Jeltzaleek eta sozialistek idatzia atera zuten HBren mozioa zinitzat jotzen, eta alkateari bozeramaleen batzordea eratu dezala eskatzeko, "demagogia barik edozein eratako moziok azter daitezten".

Kiroldegiaren arazoan eskuhartzea eskatu zaio Diputazioari

Musakolako kiroldegiaren egoera gero eta larriagoa dela eta, arazoan parte hartzea eskatu dio Udalak Diputazioari.

Hasteko, Musakolako instalazioak zabalik eduki daitzeko jakiteko ikerketa teknikoa egin dezala eskatu zaio Foru Aldundiaren Kultura eta Kiroletako Departamentua-

ri. Azken hilabeteetan estrukturan gaisotasuna areagotu egin denez, segurtasun alde-tik kiroldegia erabiltzeko moduan dagoen eta erabiltzaileendako arriskurik ba ote dagoen jakin nahi du Udalak.

Txosten teknikoa egingo duela ziurtzat jotzen bada ere, obrak egiteko laguntza eko-

nomikoa ere eskatu zaio Diputazioari eta dirulaguntza emango ote duen ez dago hain garbi. Kiroldegia konpontzea erabakiz gero obrak kostu handia izango lukeenez, 175 milioi baino gehiago, ezinbestekotzat jotzen da Diputazioaren dirulaguntza.

Oraindik hala ere ez da

erabaki zein irtenbide eman kiroldegiaren arazoari. Otsailaren 24an AUKEaren hileroko bilera egingo da, eta batzar horretan alderdi politikoen guztiek euren proposamena aurkeztu beharko dute. Ondoren erabaki hori Udalera helaraziko da, eta plenoak izango du azken hitza.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
 Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA

 Mota guztietako zoruak
 Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
 Lehioak • Ateak
 Eskailerak • Armairu enpotratuak
 Eta abar
MATERIALEN SALMENTA
 Erakusketa eta almagazena:
 Kale Txiki, 3 - behea
 Tel.: 77 11 20
 Faxa: 77 11 20
 ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak
 Uribe Auzoa
ARRASATE
 Tel.: 79 98 94



SARIDUNAK. Hiru sari banatzen dira haratuzteetan: Taldeakako saria San Andresetik etorritako egipziarrek jaso zuten (30.000 pta.), binakako saria Jesulinek eta bere lagunak (10.000 pta.) eta banakakoa leopardoak (5.000).



Play-back jaialdiak ikusleak erakartzen jarraitzen du, eta zapatuan goraino bete zen antzokia. Inor ez zen atera Amaiatik barre egin barik.

Born to Ride *Motorrez
Ibiltzeko
Jaiok ei
daude batzuk,
baina kontua
da argazkiko-
ari motorra
falta zitzaiola.*



1 9 9 7
Haratuzteak

Zertan, aitona? Ume honek ezer ez ulertzeko aurpegia dauka. Bapatean hazkurea ematen dion peluka bat jarri diotelako, pajarita handi bat... eta gainera, aitona aurpegia txuriz margotzen... Aitona: Zergatik ez diozu erretzeari uzten eta mozorroa zuk zeuk jantzi?



Muuuuuu...sika! Udalako baserri-tarren bati ihes egin ei zioten atzo behiek. Herrian musika eta zarata entzun eta berehala jeitsi ziren kalera behi dotore hauek. Zintzariak lepotik zintzilik, kalez kale ibili ziren haratuzteetako giroaz gozaten. Arratsalde batez bedarra jateari utzi eta zurito batzuk edan zituzten herriko tabernetan lasai lasai. Gauean Udalara igotzeko gauza izango ote ziren?



Ezkerra, eskubi...gooooora! Zortzikote ederra neskata hauek asteartean osatu zutena. Animatzaile gisa irten zuten kalera minifalda, ponpoi, peluka eta guzti. Kalean ibili ziren ohiuka eta saltoka, animatzaile profesionalak bezala. Arrasate Pressekoei ohorea egin ziguten eta argazkirako posea egin zuten Sebero Altuben.



Mozorro merkea. Mutikoa ez zen asko nekatu mozorroa erabakitzeko: aitonaren txapela, aitaren gabardina, erratza, betaurrekoak eta ONCEKO kupoiak... emaitza: Kupoi saltzailea... baina honek oso ondo ikusten zuen.



Kurroren konkista. Non dago Kurro? Non ba! Arrasateko haratuzteetan... Gabriela Sabatinirekin ligatzen. Bikote ederra osatzen zuten, baina hori bai, Kurrori ez zitzaion Karibean hartutako kolorea asko igartzen...

Haratuzteak

Hirukote bikingoa.

Ez dakizue zelako arazoak izan zituzten gure bikingoek adarrak dominatzen eta era berean tabernetako edariak ahora eramaten. Horregatik dena dela, ez ziren edan barik gelditu eta ezta taberna zulotan sartu barik ere.



Monster Familia

Zer eta Monster familiako kideak bisitari Arrasaten. Miercoles, Morticia, Frankenstein.. denak etorri eta Bionako gazteluan kokatu ziren martitzen haratuztean. Primeran pasatu ondoren, Frankesteinek esan zigun egun batzuk gelditu behar direla bertan. Beraz, Bionara joaterakoan ez beldurtu, jatorrak dira eta!

Saltsa Maltza

Horixe da haratuzte gau zoro batean aurki dezakezun nahastea, eta horixe aurkitu zuen gure kamarak martitzenean; ijitoak, drakula, lekaimea, katuak denak elkarrekin eta denak umoretsu. Horrelako gau gehiago beharko genituzke, bai horixe!



Zirkoa.

Zirkoetan pailasoak, trapezistak, malabaristak, lehoiak, elefanteak, tigreak... denetarik ikus daiteke. Baina irakurleok ikusi duzue sekula pailaso baten besoetan elefante bat. Ikusi ez duzuenontzat hemen eskusiba.






IRABAZITAKO KOTXEA SALGAI Azkenean bai, Ibai Arteko zozketaren kotxeak badu jaberik, baina denbora gutxirako, Espe Garaik, Ibai Arteko kotxearen irabaz-

leak Nissan Micra oria saldu egin nahi du eta. Ez da karnetik ez duelako, lehendik kotxe berri samarra duelako baizik. Pentsa, jadanik kotxea saltzeko iragarkia jarri du aldizkari honetan bertan... Ez galdu aukera!

Jose Ramon Arkauzek ez zuen horrelakorik espero baina aurreko batean Tolosan, Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntzakoek plaka bat eman zioten Arrasateko Akordeoi Lehiaketetan egindako lanagatik. Lehiaketako lanetan ibili zirenek bazkaria egin zuten eta Arkauz konbentzitu

ESKER ONEKO PLAKA ARKAUZI

bazkarira joateko, zertarako eta oparia emateko. Berak esaten du ez duela plakarik merezi eta gainera, horrelako opariak ez dituela oso gustoko baina badaki ere saltsa-maltsetan ibiltzen denari horrelakoak gertatzen zaizkiola...



INSTITUTOKOAK IKASBIDAIA

Argazkiko gazteak institutoko ikasleak dira, LOGSEko 2. mailakoak. Gabonak aurretik ikasbidaia egin zuten Madril, Segovia eta Toledora eta hor ikusten dituzue, El Escorial-eko

eskaileratan argazkirako itxurak egiten. Sekulako hotza egiten ei zuen, guztiek eskuak poltsikoetan sartuta dituzte eta. Ikasbidaira 80 ikasle inguru joan ziren 5 irakaslekin.



ARRASATEKO UMEAK Ixiar Oreja eta Iñaki Urdanpilleta Arrasaten izan genituen Euskaraoearekin asteazkenean eta ostegunean, eta jakina, ume piloak inguratu zitzaizkien. ETBk bere ekipo guztia ekarri zuen Herriko plazara, muntaia ederra benetan! Umeak gogoz aritu ziren kantuan... eta orain bat baino gehiago ahots barik egongo da!

KARAOKE LARI

Arrazakeriaren aurkako Lehen Gazte Astea

Aniztasunean berdin

Nork esan dizu ez zarela arrazista? lelopean Arrazakeriaren aurkako lehen Gazte Astea egingo da herrian, astelehenean hasi eta hilaren 23ra arte. Aipatutako denbora tartean denetarik egongo da, diaporamak, bideo emanaldiak, erakusketa, hitzaldiak, eta baita jaialdi bat ere, bertako eta kanpoko taldeen partaidetzaz. Hori guztia zertarako? Hasierako galderaren inguruan arrasatearrek hausnarketa egin dezaten.

Arrazakeriaren aurkako lehen Gazte Astearen sorburua aurkitzeko, denboran hilabete batzuk atzera egin beharra dago. Musakolara etortzen hasi ziren ijitoekin topo egin arte. Ijitoen ohiturak zirela eta ez zirela, arazo eta gorabehera ugari gertatu zen orduan. Zorionez aparteko istilurik ez zen egon, baina auzoan giroa erabat arrarotu zen eta baita herrian ere. Gertatutakoak gertatuta, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren ordezkariak Arrasatera etorri behar izan zuten, Udalarekin, auzokideekin eta ijitoekin berba egin eta arazoari irtenbideren bat emateko.



Iker, Blanka eta Eider antolakuntzako partaideetako batzuk.

GAZTEAK MUGIMENDUAN

Ordutik Arrazakeriaren aurkako Gazte Astea antolatu den arte makina bat pausu eman dira. Horien berri ema-

teko hiru gazte, hirurak aipatutako astearen antolakuntza lanetan dabilzan talde batzuren partaide: Eider Otxoa,

Blanka Jauregi eta Iker Ezpeleta. Eiderrek hartzen du hitza. "Ijitoen arazoa zela eta, urriaren 24ean SOS Arraza-

keriakoek ihardunaldi moduko batera deitu gintuzten hainbat gazte talde. Euren lanaren berri eman ziguten, legediak

etorkinengan duen eragina aztertu genuen eta mahainguru bat ere burutu zen. Han sortu zen gazteek antolatutako arrazakeriaren aurkako zerbait egiteko ideia. Hamabostean behin bildu eta *Astea* antolatzera iritsi gara". Bederatzi gazte talderen lanaren emaitza izango da astelehenetik aurrera jarraitu ahal izango den programa: AEDko Gazte Taldea, Antimilitaristak, Askagintza, Gaztetxea-AGAKo, Musakolako Gazte Txokoa, Orkatz Skaut Taldea, San Andreseko Gazte Txokoa, San Frantzisko Gazte Taldea, eta Sharp. Talde horietako bakoitzean, programari formaz eman aurretik, gaia aztertu ei da, eta kaleratuko diren esku-programetan talde bakoitzak plazaratuko ditu bere ekarpenak, esku-programan bertan sartu diren idatzitxoei esker.

HELBURUAK

Herritarrak arrazakeriaren gaineko hausnarketa egitera bultzatu gura ei ditu aste honetan erabiliko den leloak, "Nork esan dizu ez zarela arrazista?" galderak, baina hori baino gehiago egin gura ei da Blanka Jauregiren hitzetan, Gazte Zerbitzuko teknikariaren hitzetan. "Helburuetariko bat hausnarketarena litzateke, baina zuzen zuzenean beste pare bat ere lortu nahi genituzke: bata, etorkinei eta kultura minoritarioei buruzko legedia eta legearen aurrean hartzen diren eta dituen jarrerak salatzeari; bestea, kultura hauek dituzten ekarpenak ezagutzeari".

Beste kulturak ezagutu edo ez, hor egon ei daiteke jarrera arrazistak ahalbidetzen dituzten gakoetariko bat, horrela dio behintzat Eider Otxoak. "Azkenean uste dut jarrera arrazistak ematen direla ez ditugulako kultura horiek ezagutzen, eta horrek gure

artean nolabaiteko beldurrak sortzen ditu, eta ondorioz jendearen jarrera horiek". Blanka Jauregik gehiago dio oraindik. "Kontua da SOS Arrazakeriakoak etortzen direnean eta jende honen egoeraren berri ematen dutenean, sortzen dela norberaren barruan elkartasuna adierazteko gogo". Iker Ezpeletak, Gaztetxeko ordezkariak, beste hainbeste aipatzen du. "Egoera aztertzen hasi eta konturatzen zara jende honek ez duela inolako eskubiderik, ezta oinarrizkoenak ere. Legetik bertatik hasita ukatzen zaizkie eskubide guztiak. Ezin dira hemen egon kontratu legal bat lortzen ez badute, eta lan kontratu legal bat lortzeko egoera legalean egon behar dute; kontraesan handia da hori. Gainera, lanpostua lortzekotan hemengo inori konpetentzia egingo ez dion lanpostua izan behar dute, absurdoa da".

DENOK ARRAZISTA?

Arrazakeriaren aurkako lehen Gazte Aste hau ijitoekin izandako auziaren ondorio bat izan bada ere, gazte taldeen aldarrikapenak orokorragoa izan gura du. "Kontua ez da hemen ijitoekin zerbait gertatu dela eta horri erantzuna ematea, hori kontuan hartuta horren atzean zer dagoen begiratzea litzateke, eta horren atzean guztiok daukagu jarrera edo izaera arrazista bat. Dugun adibide hurbilena, jakina, Arrasatekoa bertakoa: gu ez gara arrazistak, baina segituan, zaborra botatzen dutelako, usain txarra dutelako edo atzetik eskean dabilzalako... ikusten dira jarrera arrazistak".

Gazte taldeek daramate *Astearen* antolakuntza eta mezua, baina badute beste batzuren laguntza ere, SUDC, Trikitilariak, Arrasateko Uda-

Nork esan dizu ez zara arrazista

lortu nahi den helburuetariko bat

egitera bultzatzea litzateke, jendearen g

arrazakeriaren gai orokorrera jarraitu

pare bat ere lortu nahi lirateke

minoritarioei buruzko legedia

hartzen diren etorkin

bestea, kultura hauek dituzten j

zara arrazista? galderarekin

eta bat herritarrak hausnarketa

e, in gai konkretutik abiatuta eta

ra ja joanda, baina zuzen zuzenean

iriat ere lortu nahi lirateke: bata,

ko ei buruzko legedia eta legearen

etarean

ek in jarrerak salatzea;

la eta SOS Arrazakeriak taldeak aldamenean izan direlako edo izango direlako. Beraiek ez dute aipatzen, baina *Aste* honek badu aipatzeko modukoa den beste ezauzgarri bat, partaidetza bera, gazte taldeena; izan ere, San Juanetako jai-gunearen kontuan izan ezik, sekula ez dute Arrasaten horrenbeste gazte taldek elkarrekin lan egin. Horregatik, hainbeste mitifikatu eta zabaldu den gazteen interes eta partaidetza eza, pikutara. Gehiago, gainera, kontuan hartzen bada, Udalaren aldetik bere sasoian helduen hainbat talderi luzatu zitzaie la gaiaren inguruan bera egiteko gonbidapena, eta ez zela talde bakar bat ere aurkeztu.

Kontuak kontu, begien aurrean arrazismoari aurre egiteko astebeteko zita herritar denentzat, entzun, parta har-

tu, jaiaz gozatu, eta gero bakoitzak bere inguruan hausnarketa eta erreflexioa egiteko menu aparta herriko hainbat gazte talderen eskutik. Galdera hor dago: eta zuri, "Nork esan dizu ez zarela arrazista?". Bakoitzak izango du erantzunen bat, dudarik ez, baina beharbada *Astearen* aurreko eta ondorengo erantzunak desberdinak izan daitezke, errealitateak ezagutzetik sortzen direlako ideia berriak, beste batzuen tokian jarri eta euren egoera eta bizimodua ulertzera eraman dezaketen ideiak. Gazteek jarri dute herrien eta kulturen arteko zubia eraikitzeke lehen harria. Euren hasitako balizko zubi horri behin betirako jarraipena emateko, egiozu galdera zeure buruari: Nork esan dizu ez zarela arrazista? ■

Beñardo Kortabarría

Berriz etorkinak eta gu!

Badirudi azken aste hauetan ez direla ijitoak herrian somatzen. Jadanik ez dira haur eta emakumeak kalean eskean ikusten, eta beraien bizileku izan zen apartakalekua hutsik dago berriz. Baina betirako joanak izango ote dira edo beste batzueri lekua utzi al diete? Kasuak kasu, denok darabilgu gai hau buruan eta denok onartzen dugu gatazka egoera sortzen dela ijito edo etorkin talde bat herrira etortzen denean.

Minutu batez beraien lekuan jarriko bagiina... beste pentsakera eta kultura bat, oinarritzko eskubide ukatuak, gizartea gure aurka, ... bizi ahal izateko irtenbide posible batzuk aurkitu beharrean egongo ginateke.

Etorkinen "arazoa" aspaldidanik da ezaguna gure artean eta badirudi begiak itxi nahi ditugula honen aurrean. Denbora pixkat hartu eta elkarbizitzarako klabe posible batzuk bilatzen ere saia gaitzke, horrela behintzat arazoa konpondu eta gainera beraien kulturekin aberastu ahal izango dugu gurea ere.

Eider Otxoa, Arrazakeriaren aurkako Gazte Astearen izenean

RKUZ


altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian
Betiko, muntaiak

FAGOR 

Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55

elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 79 10 97

Aretxabaleta

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabilioia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE



Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!

Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

Pertika-jauzilaria

JONATAN PEREZ

“Euskadiko txapelduna izatea gustatuko litzaidake”

— Noiztik pertikarekin lanean?

— Irailean hasi nintzen. Aurretik tripleak egiten nituen baina behin entrenatzaileak pertika frogatzeko esan zidan eta hortan nabil.

— Irailetik ona emaitza onak lortu dituzu?

— Pozik egoteko moduak bai. Anoetan froga libre-tan hartzen dut parte eta dagoeneko nire mailan Gipuzkoako bigarrena naiz. Nire jauzi onena bi metro eta 90 zentimetrotan dago.

— Ze prestakuntza egiten duzu?


— Pertika jauzia egiteko lehenik eta behin indarra eta ausardia behar da. Gero entrenamendu ona eta hortan saiatzen naiz asteko bost egunetan.

— Pertika egiteko tokirik bai Arrasaten?

— Tamalez ez, horregatik astean behin gutxienez Anoetara joan beharra daukagu eta horrela ibilita zaila da urrutira heltzea. Instalakuntza egokiak botatzen ditut faltan.

— Hurrengo frogak?

— Otsailaren 22an Gipuzkoako Txapelketan hartuko dut parte eta ondoren Euskadikoan.



SASKIBALOA Beste aukera bat



Urbina Maltzagak Montcadaren bisita jasoko du zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen.

German Mongeren mutilak azken boladan bezala garai-penaren bila kantxaratuko dira, baina erronka ez da hain samurra izango aurrean talde sendoa izango da eta. Lehen bueltan Arrasateko taldeak ezin izan zuen neurketa irabazi, ea bigarren aukeran puntuak etxean gelditzen diren.

ESKUBALOA Gipuzkoarren arteko derbia



Arrasate Eskubaloi taldea eta Zarautz nor baino nor izango dira Iturripen. Partidua zapatuan jokatuko da arratsaldeko 8etan. 16 ihardunaldi jokatu direnean kostaldeko taldeak zortzi irabazi eta bost galdu ditu, 19 punturekin sailkapeneko 5. tokian dago. Arrasatek bestalde, 12 galdu eta hiru baino ez ditu irabazi.

FUTBOLA Emakumeak eta gizonak Atxabalpen



Mondrako emakumeek Bilbo taldea izango dute arerio domekan eguerdiko 12etan Atxabalpen. Lehen bueltan Arrasateko taldea galtzaile irten bazen ere, domeka honetan irabazteko gauza izan daitekeelakoan daude.

Preferente mailako Mondrak itxuraz ez luke arazorik izan behar Lazkao


gainditzeko. Hori horrela den jakiteko Atxabalpen egongo da aukera domekan 4.15etan. Mondra une honetan sailkapeneko hirugarren tokian dago 43 punturekin, aurretik Unibertsitatea eta Mutriku taldeak dauzka.

PILOTA Euskal Liga jokoan



Arrasateko pilotariak Euskal Ligako finalerdietako neurketa jokatuko dute zapatuan eguerdiko 12etan hasita Iturripeko frontoian. Juniorretan eskuz binaka Osinagak eta Rubiak osatuko dute herriko bikotea; aurrean berriz, Gasteizko Adurza taldeko pilotariak izango dira. Deba Arroari dagokionez, astebukaera honetan atsede-na izango dute.

RUGBYA Hernani aurkari



Arrasateko rugbulariek Hernaniren kontra neurketa jokatuko dituzte indarrak zapatuan arratsaldeko 4etan Landaren zelaietan. Patxi Gorosabel entrenatzaileak ez du baja nabarmenik izango eta talde orekatuena zelairatu ahal izango du.

MOTORRAK Izen ematea zabalik

Arrasateko Motozale Elkar-teak 97-98 denboraldirako izena emateko epea zabaldu du. Horretarako aukera martxoaren 15a arte egongo da, prezioa 2.000 pta. Izena emateko Musakolako lokalean edo 79 68 31 zenbakian.

Aukea sariak


Aurtengo kirolari onenak

Urteroko ohiturari jarraituz, Aukea sariak dagoeneko badituzte jabe berriak. AUKEAK urtean zehar kirol mailan gertatutakoari gainbegirada eman ondoren, honako per-

tsanak eta erakundeak auke-ratu ditu. Banakako saria hartzeko hiru izen mahai gaine-an: Itsaso Mallabiabarrena, Xabier Mentxaka eta Zigor Urain. Hiruren artean aurtengo saria Xabier Mentxakak

jasoko du. Taldeen arteko sariarendako beste hiru talde: Saioa Karate Taldea, Arrasate Txirrindulari Elkarte eta Dorletako Ama Txirrindulari eskola. Sari hori azkenean Arrasate Txirrindulari Elkarteari ego-

kitu zitzaion. Sari berezia edo aipamen berezia berriz, Matilde Garai korrikalari ohiak jasoko du. Aukeraketa egina bada- go ere, Aukeak oraindik ez du erabaki noiz banatuko diren sariak.



Xabier Mentxaka
(Korrikalaria)

Xabier Mentxaka Arrasate Atletiko Taldeko korrikalari beteranoena da. 14 urterekin hasi zen korrika egiten eta aurteten beterano mailara egin du jauzia. Atletismoari eskaini dizkion 26 urteetan behar bada ez du errekor aipagarriarik lortu baina beti egon da aurrealdean eta beti erakutsi du dohai berezia kirol horrekiko. Mentxaka distantzia luzeetan hobeto moldatzen da eta inguruko kros garrantzitsu gehienetan hartu du parte, hala nola, Gipuzkoako krosean, Mugerza memorialeko edo Donostiako Nazioarteko Krosean. Aurten esan dugun bezala Arrasateko korrikalaria beterano mailara pasa da eta dagoeneko Gipuzkoako txapeldunorde geratu da eta Euskadiko krosean laugarren postua eskuratu du.



Matilde Garai
(Aipamen berezia)

Matilde Garai 1970. urtean hasi zen atletismoan, 16 urte zituela. 14 urte eskaini dizkio kirol honi eta denbora honetan krosean eta baita pistean ere makina bat lasterketetan parte hartu du. Matilderen espezialitatea 200 eta 400 metroak ziren. Arrasateko korrikalaria Juventud Deportiva Mondragon, Sociedad Anoeta eta Atletico San Sebastian taldeetan ibili zen, Estatuko selekzioko partaide izatea lortuz. 1.984an 30 urte zituenean lehiaketako atletismoa alde batera utzi zuen. Dagoeneko 12 urte igaro dira Matildek atletismoa utzi zuenetik eta oraindik berak ezarritako hainbat errekor gainditu gabe daude: 100 metroan 12.7 denborarekin, 200 metroak 25.4rekin, 400 metro 58 segundorekin eta 4X400 errelebo frogan. Azken honetan talde kide Iriarte, Ganboa eta Otxandiano korrikalariak izan zituen.



Arrasate Txirrindulari
Elkartea

Lau urte daramatza Arrasate Txirrindulari Elkarteak lanean eta tarte horretan era guztietako lasterketak antolatuta dituzte. Lorpen handiena dena dela, afizionatu mailako taldea sortzea izan da. Talde horrek ia eman zituen lehen pedalkadak afizionatu mailako txirrindularitzan. Lehen denboraldian 82 lasterketetan parte hartu zuten. Horrez gain, Bidasoko Itzulian eta Goiherrikoan ere egon zen Arrasateko ordezkariarik. Esan daiteke hemeretzi txirrindularik eta bi zuzendarik osatzen duen taldeak toki bat hartu duela afizionatuen tropelean.



Zortzi talde kalean

noiz baino talde gehiago dago txapelketatik kanpo lehen fasea bukatzeko lau ihardunaldi falta direnean. Talde guztiek ez aurkezteagatik utzi behar izan diote jokatzeari, beraz antolakuntzak ez du zerikusi zuzena izan. Txapelketa utzi duen azken taldea Tronkoteak. Gauzak nola dauden ikusita ziur ez dela azkena izango.

Laburrak

■ TALDE SAILKATUAK MULTZO BAKOITZEAN

Lehen fasea bukatzeko azken txangoa falta denean, hainbat taldek lortu du bigarren faseara sailkatzeko txartela. A taldean Irati STS, Betraye, Lora-tegi, Arrogoi Taberna eta Aurrera Bolie dira matematikoki sailkatuta daudenak. B taldean Naranja Mekanika, Okoretegi eta Cerveceria Leintz. Dn berriz, bakarra, Sortu Informatika.

■ PARTIDURIK EZ

18. ihardunaldian sei taldek ez dute partidurik izango: Jotakabau, Lautherbrunnen, Txeyenex, Cartonajes Igamo, Sortu Informatika eta Lora-tegi.

■ IHARDUNALDI MAKALA

Datorren asteburuan itxuraz behintzat ez da ihardunaldi bizia izango Zaldibar txapelketan. 26 neurketetatik bi bakarrik gomendatuko ditugu: Zapatuan Zaldibarren eguerdiko 12etan AC surcos eta Orlando Piratasen artekoa, eta Iturripe An Cerveceria Leintz eta Ke Oxtiasek arratsaldeko 2etan jokatu dute.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Irati STS	17	15	1	1	100	30	31
Betrayer	17	14	0	3	100	37	28
Lorategi	17	12	3	2	63	36	27
Arrogoi Taberna	17	13	0	4	68	55	26
Aurrera Bolie	17	12	1	4	89	54	25
Galartza Konte	17	11	1	5	80	48	23
Totem	17	10	2	5	82	47	22
Pipwhis	17	10	1	6	71	54	21
DKB	17	8	5	4	56	43	21
Oñaniereng	17	9	2	6	49	60	20
Abinagraus	17	8	2	7	76	53	18
Ojo Avisore	17	7	2	8	74	63	16
Berango Sukaldeak	17	7	2	8	68	67	16
Me la pela	17	6	2	9	61	56	14
Baneuko	17	6	2	9	35	47	14
Leya	17	6	1	10	54	77	13
Potrosorri	17	6	1	10	48	74	13
Viboras	17	4	1	12	62	88	9
Alai Gozokiak	17	2	5	10	32	77	9
Kriskibalda	17	2	2	13	34	75	6
Etxe Mobil	17	1	0	16	16	143	2
Kaxi Ganamos	17	0	0	17	3	37	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Naranja Mekanika	17	15	0	2	125	40	30
Okoretegi	17	13	3	1	86	29	29
Cerve Leintz	17	13	2	2	103	34	28
Insert Coin	17	11	2	4	79	38	24
Ke Oxtias	17	10	3	4	64	47	23
Jotakabau	17	9	4	4	58	62	22
Argi Ibili	17	10	0	7	94	33	20
Diego Antonio	17	10	0	7	90	64	20
Los Innombrables	17	7	6	4	73	63	20
Pepelus	17	7	4	6	71	60	18
Fosforos	17	8	2	7	76	74	18
Los Heredia	17	8	2	7	64	64	18
Motz	17	6	4	7	56	73	16
ZZPPW7	17	5	5	7	75	82	15
Perrahotsa	17	6	3	8	45	59	15
La Mosca Gao	17	5	4	8	87	91	14
Sobr. de Txeira	17	6	2	9	56	75	14
Gualtrapas	17	5	1	11	51	89	11
Kinder Konpresa	17	3	1	13	47	100	7
Ganbelas	17	3	0	14	47	83	6
Elisabeth	17	1	3	13	41	139	5
Hapoel Jamon	17	0	1	16	33	122	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Sortu Informatika	17	13	2	2	94	40	28
Txeyenex	17	11	4	2	78	43	26
Nuevo Taberna	17	10	4	3	94	51	24
MSM Inge Integral	17	12	0	5	74	51	24
Sokoakoak	17	11	1	5	97	62	23
Orlando Piratas	17	10	2	5	74	66	22
Bedarreta Tab.	17	10	1	6	59	44	21
Kk Jaurilarizari	17	10	1	6	64	63	21
AC Surcos	17	9	2	6	118	64	20
Adelaida-Aldibi	17	9	1	7	72	63	19
Los Dimy	17	9	1	7	63	61	19
Danok Lagun	17	8	3	6	55	57	19
Koka Juniors	17	7	3	7	68	64	17
Hirei	17	7	1	9	46	74	15
Lautherbrunnen	17	7	0	10	49	83	14
Cartonajes Igamo	17	5	2	10	47	59	12
Bukanak	17	6	0	11	55	80	12
Tronkoteak	17	6	0	11	34	86	12
Borrock'n Roll	17	5	1	11	79	82	11
Anbotoste	17	4	0	13	32	56	8
Rotor de Bolb.	17	1	2	14	7	49	4
Iluna Taberna	17	1	1	15	31	92	3

Irudia



ANTOLAKUNTZA. Astelehenero Txoko tabernan elkartzen da Zaldibarko antolakuntza. 14 lagunek osatutako taldeak ez du lan gutxi izaten bileretan. Batetik jokaturako ihardunaldia baloratu behar, bestetik hurrengo prestatu, eta hori dena musutruk. Astelehenean Iker, Unai, Jon, Haritz, Oier eta Jon aurkitu genituen bileran.

Emaitzak

A taldea

Betrayer 4 - Abinagraus 1
Ojo Avisore 6 - Leya 5
Arrogoi tab. 7 - Potrosorri 1
Kriskibalda 0 - DKB 0
Irati STS 1 - Pipwhis 0
Lorategi 0 - Onaniereng 0
Alai gozokiak 1 - Kaxi ganamos 0
Aurrera Bolie 1 - Totem 9
Baneuko 0 - Viboras 1
Berango suk. 6 - Etxe Mobil 0
Me la pela 1 - Galartza kont. 3

B taldea

Argi Ibili 0 - Okoretegi 1
Ke Oxtias!! 2 - Jotakabau 3
Ganbelas 2 - Leintz garag. 4
Insert Coin 1 - Naranja mec. 7
Motz 3 - Pepelus 3
ZZPPW7 1 - Los Heredia 2
Los Innombr. 3 - Gualtrapas 2
Kinder Konpresa 4 - Elisabeth 5
Sobred. de Txeira 3 - Fosforos 5
La mosca gao 11 - Hapoel jam. 2
Perrahotsa 2 - Diego Antonio 6

D taldea

Lautherbrunnen 7 - Sokoakoak 3
Iluna tab. - Rotor de Bolbogrado -
Orlando Pirates 3 - Txeyenex 3
Bedarreta tab. 5 - AC Surcos 5
Danok Lagun 6 - Kk Jaurilarizari 4
Carton. Igamo 2 - Adelaida Aldibi.6
MSM Ing. Int. 1 - Tronkoteak 0
Nuevo tab. 2 - Hirei 2
Koka Juniors 2 - Los Dimy 5
Sortu Inf. 4 - Borrock'n roll 3
Bukanak 1 - Anbotoste KT 0

Hurrengo partiduak

18. Ihardunaldia

Otsailak 15. Larunbata

Zaldibar

8.50 Elisabeth - Los Innombrables
10.00 Adelaida Aldibi - Danok lagun
11.00 Potrosorri - Ojo Avisore
12.00 AC Surcos - Orlando Piratas
13.00 Sokoakoak - Bukanak
14.00 DKB - Arrogoi Taberna
15.00 Los Dimy - Nuevo taberna
16.00 Naranja mekanika - Ganbelas
17.00 Hirei - MSM Ingen Integral
18.00 Galartza Kont - Berango Sukaldeak
19.00 Diego Antonio - La Mosca Gao

Iturripe A

11.00 Los Heredia - Motz
12.00 KK Jaurilarizari - Bedarreta Taberna
13.00 ETxe Mobil - Baneuko
14.00 Cerve Leintz - Ke Oxtias
15.00 Leya - Betrayer
16.00 Oñaniereng - Irati STS

Iturripe B

13.00 Viboras - Aurrera Bolie
14.00 Gualtrapas - ZZPPW7
15.00 Abinagraus - Ma la pela
16.00 Fosforos - Kinder Konpresa

Otsailak 16, Igandea

Zaldibar

8.50 Hapoel Jamon - Sobred. de Txeira
10.00 Okoretegi - Perrahotsa
11.00 Totem - Alai Gozokiak
12.00 Borrock Roll - Koka Juniors
13.00 Pepelus - Insert Coin

MAITE ARISTEGI (EMAKUME BASERRITARREN ELKARTEKO KIDEA)

“Prestigioa eman behar da”

El karrizketa bukatuta-koan kalerako bidea hartu genuen Maitek eta biok. Itxura kurio-soa erakusten zuen erdi abokatua, erdi baserritarra den emakume honek: esku batean larruzko poltsa paperez beteta, eta bestean esne marmita. Goizetan Bergaran duen bulegora jeisten da Maite, eta lan horrek ordu asko kentzen dion arren, arratsaldetan baserriko lanetarako astia aurkitzen du.

- Erdi abokatua, erdi baserritarra.

- Horrela izan dadin saiatzen naiz. Lehen EHNEan egiten nuen lan, baina baserriko lanei heltzeko sindikatuko lana utzi nuen. Ahal dudanean egun erdi baserriko lanei eskaintzen diet, baserria pila bat gustatzen zait eta. Baserritik bizi daitekeela demostratzeko heldu

nien berriz ere baserriko lanei. Prestigioa eman behar diogu baserriari, eta bertan lan egiten dutenei. Batzuek azkeneko aukera bezala ikusten dute baserrian geratzearena, baina irudi hori aldatu beharra dago. Baserrian aritzeko kontabilitatea, eskulanak egiten eta produkzioa eramaten ikasi behar da. Batzuek bigarren mailako lan bat bezala ikusten dute, baina pertsonarendako oso aberasgarria izan daiteke baserriko lan desberdinak egiten jakitea.

- Emakume Baserritarren Elkarteko (EBEL) kide zara, eta elkar-

teak antolatuta astean Arrasateko auzoetan izan zara hitzaldiak ematen. Zein helbururekin?

- Industriak garrantzia handia duen bailaratan, esaterako hemen, nekazaritza gain-behera doa. Lur asko kendu digute, jendea lantegira joan da soldata seguru baten bila... baserri asko noraezean dago eta etsipena barruraino sartuta poztasun gutxi dago baserri munduan. Azken urteetan, bestalde, senarra lantegira jeitsi eta emakumeak eramandu baserriko pisua. Baserriari eustea



“Batzuek azkeneko aukera bezala ikusten dute baserrian geratzearena, baina irudi hori aldatu beharra dago”

diogu baserriari”

garrantzitsua da, eta emakumeak paper handia jokatzeko du. Baserriko emakumea animatu beharra dago, baina horretarako gaur egun zein alternatiba dauden ezagutu behar dute. Baserriko eta kaleko lana bateragarriak izan daitezke, oporrak hartzeko aukera badago... ondo informatuta egotea ezinbestekoa da.

- Beraz, emakume baserriarrek badituzte eskubide batzuk baina beharbada ez dituzte ezagutzen.

- Hori da. Adibidez, kotitularitatea. Baserriari lan egin duen emakumea banandu egiten bada edo alargun geratuz gero, babes barik geratzen da. Kotitularitatearekin, berriz, emakumeak egindako lana errekonozitzen da. Tresna bila gabil-

tza, hori errekonozitu eta emakumeak segurtasuna izan dezan. Bestalde, emakume baserriar askok kotizatu egiten du baina beste batzuk ez. Asegurua ez da ona prestazio aldetik eta saiatu beharko dugu presioa egiten hori hobetzeko, baina bestetik, kotizatzen ez dutenek jakin behar dute garrantzitsua dela gizarte segurantzara afiliatuta egotea. Hitzaldian aukera horiei buruz informatzen saiatu naiz, baina sakondu asmoz orain ikastaroa emango dugu. Ikastaroa oso praktikoa izango da, beste esperientzia batzuk ezagu-

tuko ditugu.

-Baserriarrek animatu nahi dituzue, baina esperantzarik izan dezakete?

- Nik uste dut baietz. Geratzen dena da alternatiba batzuk gutxi landu direla eta laguntza eskasa izan dutela. Azalera handiko supermerkatuak hortxe daude, baina geu ere antolatzen bagara irtenbide bat aurki dezakegu. Ekonomia aldetik dauden aukeren berri ere eman diet hitzaldian. Esaterako, Leintz Gaztagako proiektua dago, Errezilgoak elkartuta hasi dira sal-

tzen... gogoia behar da eta beharbada emakume edade-
tuak animatzea zaila da, baina gazteak anima ditzakegu.

-Zertarako eratu zen EBEL?

- Konturatu ginen emakume baserriarrek arazo

batzuk zituela baina arazo horiei ez zitzaizela erantzunik ematen. Gainera, emakumeak baserriari lan asko egin arren, horrek sindikatuan ez zuten isladarik, esaterako, bile-retan emakume gutxiak parte hartzen zuten. Horrela, EHNE sindikatuak bultzatuta Emakume Baserriarrendako Elkar-
tea sortu zen orain dela sei urte. Arazoei aurre egiteko, emakume baserriarrek elkartzea izan zen helburua. Gipuzkoan 300 bat emakume dira elkarteko partaide. Ni neuz Deba Garaiko ordezkaria naiz elkartean.

-Emakume baserriarren egoera aztertzen ari zara.

- Oraintxe ari naiz emakume baserriarrei buruzko ikerketa sozio-ekonomikoa bukatzen. Ikerketan Elkarte Autonomoko emakume baserriarren egoera azaltzen da, eta orain ikerketan jasotzen denaren berri emango dugu. ■

“Baserriari eustea garrantzitsua da eta horretan emakumeak paper handia jokatzeko du”

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tel.: 79 87 74
ARRASATE

ORTO + LAGUN
ORTOPEEDIA
Zugan pentsatuz, laguntzeko prest
• Lanerako zuekoak.
• Aluminiozko gurrpil aulkia; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
• Bizkarreko minak ekiditzeko gerrikoak.
Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.
Konteziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

Arrasateko eta inguruetakoko euskara lantzeko ikastaroa Udal Euskaltegian

Arrasateko Udal Euskaltegiak Arrasate eta inguruetakoko euskara lantzeko ikastaroa antolatu du herriko hainbat ikastoletan. San Viatorren, San Frantzisko Xabierren eta Umezaintzan hain zuzen ere. Hasi berri den ikastaroa ikastoletako irakasleei bakarrik zuzenduta bada ere, aurrerago herritar guztiei eta eskola publikoetako irakasleei zabaltzea nahiko luke Udal Euskaltegiko ardura-dunek.

Udal Euskaltegikoaren esperimentazioaren arabera, "Arrasaten euskarazko ahozko harremanak gehienetan bailarako euskararen egiten dira nahiz eta pertsona alfabetatuak edo euskaraz heziak izan. Bestalde, euskaldun berriek bertako natibekin hitz egiteko gure azpieuskalkiaren ezagupen ezaz mintzo dira". Horren ondorioz, euskaldun berriek, ahozko harremanak aurkitu nahian, hemengo euskalkiaren ezaugarriak jakin nahi dituzte eta euskaldun zahar alfabetatuek bestalde, arrasatera erabiltzeko gogoazaltzen dute.

Hemengo euskalkia eza-gutzeko gogoak alde batetik, eta gaur egun kaletar askok darabilten euskalki kutsatua garbitzearen bestalde, Udal Euskaltegiak ikastaroa antolatu du. Joxerra Agirreurretak,



Udal Euskaltegiak momentuz ikastoletako irakasleei bakarrik zuzendu die bere ikastaroa.

Udal Euskaltegiko zuzendariak, honako irakurketa egiten dio ikastaroari: "Gaurko gazteek euskalkia hartu dute jergarako, kalean hitzegiteko baina kasu gutxi egiten zaio jerga horren kalitateari eta behea jodu. Ordua da horri heltzeko eta kutsatu egin den euskalkia garbitzeko. Uste dugu erreflexio gutxi egin dela euskalkiaren gainean baina pentsatzen dugu ere jendeak euskalkia ondo hitzegiten ikasi nahi duela".

16 ORDUKO IKASTAROA

Aipatutako ikastoletan burutzen ari den ikastaroa 16 ordukoa da, zortzi saiotan banatu-

ta, saio bakoitza bi ordukoa. Iraupen hori berriz ez zen Udal Euskaltegikoek nahi zutena, hasieran ikastaro bakoitzak 40 ordukoa izan behar zuen eta. Irakasleen ordutegiak direla eta, iraupena erdira jeitsi behar izan da. Horrek ekarri du hasieran pentsatuta zegoen lan sistemaren moldapena eta ikastaroan parte hartu behar zuten hizlari guztiek ikastola guztietan ezin parte hartu ahal izana. Hizlariak Xabier Zubizarreta, Miren Arregi, Karmelo Uribarren, Estepan Plazaola, J.M. Garai, J.M. Elexpuru, Gerardo Elortza, Xabier Azkarate, Nerea Zubiete eta

Beñardo Kortabarria izango liriateke.

Ikastaroan izena eman duten irakasleei dagokionez, San Viatorren 23 irakaslek jaso dute ikastaroa, SFX ikastolan eta Umezaintzan berriz, momentuz 20 lagunek eman dute izena.

San Viatorren jadanik bi saio burutu dira eta Udal Euskaltegiak balantze ona egin dute. Akaso gramatikaren gehiegizko presentzia izan da orain arteko saioetako hutsegite bat eta horregatik diote inoiz ikastaroa herritarrengana zabalduko balitz, arinagoa izan beharko lukeela.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE

ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOAK

GURE ETORKIZUNA

...Unibertsitate
eta lan
munduraino



*Dohaineko hezkuntza, kalitatezkoa,
integratzailea eta euskalduna.*

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ereduak: "D" eta "B"

Eraikuntza berezia

- Araudi eta barne eraketa bereziak
- Ordutegi desberdina (goiz eta arratsaldez)

Irakaskuntza euskalduna

- Irakasle euskalduna ("B" eta "D" ereduak)

Zerbitzu guztiekin

- Garraioa (dohaineko zerbitzua)
- Jangela (subentzionatua, laguntzailearekin)
- Orientazio departamenduak (hezkuntza pertsonalizatua)
 - Tutoreak
 - Orientatzailea
 - Psikologoa

Aukerako eskaintza zabalena

- Alemana
- Antzerkia
- Bertsolaritza
- Sukaldaritza ingelesez
- Informatika
- Euskal Dantza
- Frantsesa
- Abesbatza
- Matematika tailerra

Baliabide guztiekin

- Bideo gela
- Informatika gela
- Teknologo gela
- Natur Zientzien laborategia
- Ikusentzutekoen gela
- Liburutegia



Matrikula
epea
otsailaren
17tik 28ra
arte

Informazio gehiagorako:

Institutua: 79 44 47 / 79 20 38



Finantz Zerbitzurik osoena
beren kontura
lan egiten dutenentzat

Orkainketa:

150.000 pezetatik 999.999 pezetara %2,5eko UTB.

1.000.000 pezetatik 4.999.999 pezetara %3,5eko UTB.

5.000.000 pezetatik aurrera %4,5eko UTB.

Promoziok:

Autonomoen Ordainagiria helbidereatzeagatik:

• Visa Clasica Txartela doan, Autonomoen ordainagiria helbideratuta duzun bitartean.

Aurrikuspen, Pentsio edo Jubilazio Plan bat irekitzearren:

- 5.000.000 pezetako lehen ekarpena doan Euskadiko Kutxaren kontura.
- 3.000.000 pezetako Istripu Asegurua lehe urtean zehar, inoalako kosturik gabe.

Produktu eta zerbitzu bereziak:

Aholkularitza Fiskala doan, 901-333 444 telefono zerbitzuaren bidez, 8:00etatik 22:00etara.

Telebankarako, Euskadiko Kutxaren banka-zerbitzurako, sarrera doan.

Zure proiektuentzako finantzaketa, baldintza bereziko kreditu-linea baten bidez.

Gaixotasun eta Istripuagatik Baja Asegurua merkatuan dauden antzekoak baino %25eraino merkeago (Seguros Aegon, S.A.rekin kontratataturik).



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

NATALIO MAIZTEGI

“Hirietan ez bezala, herrietan ez da egoten saloi dantzak praktikatzeko tabernarik”

Hogeita sei urte ditu, oñatiarra da, mekanika ikasi zuen baina saloi eta Karibeko dantzen irakaslea da. Euskadiko Kutxan hasi zen lanean baina kasualitate batek dantza mundura eramane zuen. Arrasaten ikastaroak eman izan ditu eta orain ere horretan dabil. Gainera Iruñan eta Beasainen taberna batzuetan lanean dabil dantzari moduan.

— Gaur egun dantzatik bizi zara. Nola heldu zara horretara?


— Nahiko modu kuriosoan. Mekanika ikasi nuen eta ondoren Euskadiko Kutxan hasi nintzen lanean. Une berean dantza ikastaro batzuetan eman nuen izena, besterik gabe, ikasteagatik. Laneko lagun batzuk dantza batzuk erakusteko esan zidaten eta baietz esan nien. Antza denez saloi eta Karibeko dantzak irakasten nituela zabaldu zen ingurutik eta jendea deika hasi zen. Oinarri txiki bat baino ez nuenez, nire aldetik nekiena sakontzen hasi nintzen Donostian eta Iruñan ikastaro intentsibo batzuetan. Geroztik ez naiz geratu. Lana ez zait falta.

— Orain non zabilta lanean?

— Arrasaten ikastaro bat ematen nabil EKIN emakume taldean eta laister Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan hasiko naiz. Santa Agedako emakume gaixoei ere irakasten diet. Bestalde, astean hiru egunez Iruñan egoten naiz ikastaroak ematen eta hanga bi tabernetan gaez lan egiten dantzari moduan, animatzaile gisa. Beasaingo taberna batean ere banabil.

— Ze dantza dakizkizu?

— Guztiak. Karibeko dantzetan salsa, merenge, cha-cha-cha eta boleroak; saloi dantzetan tangoa,



pasodoblea, rockanrolla, balsa...

— Zergatik daude hain modan orain dantza ikastaroak?

— Dantza hauek oso dibertigarriak dira eta... nori ez zaio dantzan egitea gustatzen? Jendea ondo pasatzeko joaten da ikastaroetara eta gero tabernetan edo berbenetan dantzan egiteko. Bada ere jende berria ezagutzera doanik eta baita lanarekin deskonektatzeko asmoz joaten denik ere.

— Gizonak edo emakumeak animatzen dira gehiago ikastera?

— Arrasate moduko herrietan emakumeak etortzen dira gehiago baina Iruñan adibidez, emakume eta gizon kopuru berdina dago. Normala da diferentzia hori egotea, herrietan ez da egoten saloi edo Karibeko dantzak praktikan jartzeko edo ikusteko tabernarik eta.

— Zuri zein dantza gustatzen zaizu gehien?

— Salsa.

aste gazte

■ IKASTAROA

• Euskal Dantzen ikastaroa: a) 10-14 urte bitartekoei zuzendua, asteazkenetan, 6.30etatik 7.30ak arte, otsailaren 19tik San Juanak arte. b) 15 urtetik gorakoei zuzenduta, ostiraletan, 7etatik 8.30ak arte, martxoaren 14tik San Juanak arte. Matrikula: 1.000 pta. Plaza mugatuak. Bikote mixtoek lehentasuna izango dute.

■ SEXUALITATEA

• Antikonzeptzio informazio kanpaina: diafragmak, DIUak, preserbatiboak, pilulak... metodo ezberdinak eta dagozkien ezaugarriak ezagutu nahi badituzu, eman bueltatxo bat Sexualitate Bulegotik (Garibai Etxeko goiko solairuan), otsailaren 20 arte egongo dira ikusgai.

■ LANA

• Nafarroako Foru Komunitateak erizain lanpostu bat kaleratu du. Epea: otsailak 24.

■ BEKAK

• 97-98 ikasturtean edo 98ko udan atzerrian ikasteko hainbat beka deituta dago (Belgikan, Alemanian, Bulgarian, Errusian...) Epe ezberdinak.

■ LEHIAKETAK

• Ikasketa bidaien proiektu lehiaketa, Kutxak antolatuta. BBB, UBI, LH eta LOGSE. Batxilergoko ikasleei zuzendua. 250.000 eta 65.000 Pta. bitarteko sariak. Epea: martxoak 10.

• Pasaiako Udalaren X. Komiki lehiaketa. 15-25 urte bitarteko gazteei zuzendua. Epea: martxoak 20.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

Mekanika ikasi arren, dantzatik bizi da ikastaroak ematen eta animatzaile gisa

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Pisua salgai erdialdean. 90 m². Ia berria da eta berogailu eta igogailua dauzka. Tel.: 79 42 13.

• Eguzki dorrean pisua salgai. Tel.: 79 09 63.

• 92 m²ko pisua salgai Larringain kalean (Malvinas). Tel.: 79 78 08.

• Arrasateko erdialdean apartamentua saltzen da. Berogailu zentrala eta ganbararekin. Tel.: 79 52 93. Eguerdietan edo gauetan.

• Pisu merkea salgai Uriburu kalean. Tel.: 79 88 66.

2. Erosi

• Etxea erosi nahi dut Arrasaten. 100 m² ingurukoa. Nahiago igogailua eta berogailua izanez gero. Sarrera eguna negoziagarria. Tel.: 79 01 26.

• Etxe bila nabil, unifamiliarra, adosatua edo txaleta. Alokatzeko edo erosteko. Deba Bailaran edo inguruetan. 130 m² izan behar ditu gutxienez, jardina eta garajea. 76 91 30.

3. Errentan emateko

• Salobrenako hondartzan txaleta alokatzen da. Tel.: 79 49 98.

• Alakanteko San Juan hondartzan pisua alokatzen da. Tel.: 79 49 98.

5. Etxe konpartituak

• Alokatzeko edo konpartitzeko pisu bila nabil. Tel.: (945) 42 00 13. Gaspar.

• Deustuko ikasle pisu batean gela bat alokatzen da oso prezio onean. Tel.: 79 19 96.

GARAJEAK

7. Saldu

• Zarugalde 3an garaje plaza saldu edo alokatzen da. Tel.: 79 23 06.

• Roneoko etxeetan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Lehengo Villa Amparo zenaren tokian garaje itxia alokagai. Tel.: 79 19 62. Gauez.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

• Garajea alokatzen da San Andresen. 65 m². Tel.: 79 13 52.

sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

10. Errentan hartzeko

• Garaje txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel.: 79 22 92.

LOKALAK

12. Saldu

• Martxan dagoen negozio salgai. Tel.: 79 00 00.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat

16. Bestelakoak

• Lokal komertziala eskuz aldatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska euskalduna gertu dendari edo kamarero lanetarako. Tel.: 79 37 68.

• Neska esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo agureak zaintzeko gertu. Tel.: 79 27 48.

• Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 04 10.

• Neska gertu umeak edo pertsonak nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Gauez.

• Emakumea gertu orduka etxeko

lanak egin edo pintxe bezala lan egiteko. Vican. Ferrerías kalea, 30-2. solairura hurbildu.

• Emakumea orduka lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 23 54.

• Esperientziadun neska etxeko lanak orduka edo egun osoz edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 79 31 44.

• Klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Jangelan eta tabernetan esperientzia duen neska lan egiteko gertu. Tel.: 79 73 42.

• Etxeko lanak egin edo aterteak garbitzeko neska gertu. Tel.: 929-47 72 65.

• Arratsaldez umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu nago. Tel.: 79 54 06. Maitane.

• Arratsaldez etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

18. Eskaerak

• Umeak zaintzeko neska behar da. Tel.: 79 90 94.

• AEKKo euskaltegirako irakasleak behar dira. Dei egin euskaltegiara. Tel.: 77 03 69.

• 35 eta 55 urte arteko emakumea behar da adineko bikotea zaintzeko. Dei egin 8etatik aurrera. Tel.: 76 51 67.

• Mugitu ezinda dagoen adineko gizon bati laguntza emateko mutil bat behar dugu. Tel.: 79 18 78. Gaueko 10etatik aurrera.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gaztelaz. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• OHO, DBH, REM eta Logseko klase partikularren ematen dira. Tel.: 79 98 68 / 79 40 57.

• Irakasle titulodunak Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako klase partikularren ematen ditu. Tel.: 79 94 04.

• Guraso bazara eta zure seme-alaben eskolako lanetan laguntzeko astirik ez baduzu, lizentziadun, EGAdunak eta ingelesa dakienak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 11 99. Itziar.

• Magisteritzan diplomadunak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 35 24.

• OHOk eskola partikularrak ematen ditut. Tel.: 79 68 18. Agurtzane.

• Kimikan lizentziaduna taldeka klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 42 97.

21. Eskaerak

• Bigarren BUPeko ingeleseko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 68 75.

• 3. BUP mailako matetatika irakaslea behar da. Tel.: 79 20 24.

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo gauez. Tel.: 79 55 04.

MOTORRA

23. Saldu

• Opel Kadett Van autoa salgai. SS-Z. Bost plaza, egoera ona. 375.000 pta. Tel.: 79 12 53.

• Renault 11 salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Nissan Micra berri-berria salgai. Estreinatuta barik dago. Matrikulatua. Tel.: 79 41 65.

• Txorizoak eta abar ebakiteko harategiko makina salgai. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 71 50 72 / 79 81 70.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

DENETARIK

26. Saldu

• Bi mostradore eta bitrina salgai. Tel.: 79 99 41 edo 79 25 26.

• Fender gitarra anplifikadorea salgai. 38 W.A. Reverd. Etxean erabili dut bakarrik. 20.000 pta. kableak eta

"chorus" pedala bame. Tel: 79 25 10. Igor.

• Eskalatzeko Boreal markako katu hanka salgai. 43-44 zenbakia. Oso gutxi erabilia. 5.000 Pta. Tel: 79 25 10. Igor.

• Compact irakurle bi salgai. Tel: 79 76 88. Prezio interesgarria.

• Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta. ko da baina nik 300.000 pta. tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel.: 79 37 82.

• 1.05 m. ko oheakoltxoi eta guzti, sekterra eta mesanotxea salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

• Fibro markako bi berogailu salgai. bakoitzak 20.000 pta. tan. Tel.: 77 07 74.

• Arraza oneko txakur kumeak salgai. Tel.: 74 28 64.

• Josteko makina mueble eta guzti salgai. Tel.: 79 22 92.

• Hammer markako snowboard tabla salgai. 1,38 m, Prezioa: 20.000 pta. Tel.: 79 33 58.

• Dynaster skiak (1,85 m.), eta Marker fijazioak salgai. Prezioa: 18.000 pta. Tel.: 79 33 58.

• Cort Luxe gitarra elektrikoa gehi Zoom 900-S efektu prozesatzailea: Biak, 100.000 pta. Suelto erostekotan: 55.000 pta. bakoitzak. Tel.: 79 16 36. Txus edo Toño.

• Boss Me-5 peldala 45.000 pta. Tel.: 79 95 83. Josu.

• Peavey Combo baxu anplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 16 36. Toño.

• Portaeski eta kotxe gainean jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

27. Erosi

• Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

• Kitarra elektrikoa eta anplifikagailua erosiko nituzke. Tel.: 74 37 23.

• Bigarren eskuko seaska bat egoera onean erosiko nuke. Tel: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

33. Bestelakoak

• Zuk nahi duzun guztia esango dizut Tarota irakurritz. Tel.: 907-43 13 62,



LORAMENDIN

Eski eskaintza

Lotea: **ESKI + FIJAZIOAK + BASTOIAK = ~~23.740~~ 16.900**

Lotea: **ESKI + FIJAZIOAK + BASTOIAK = ~~30.780~~ 19.700**

Botak: **NORDICA 5.7 LADY = ~~26.900~~ 17.990**

Botak: **NORDICA NEXT 59 = ~~29.000~~ 23.300**


ETA ESKAINTZA ZABALENA TRABESIA,
ALPINO ETA FONDOAN

ZATOZ!

San Andresen, tel.: 79 97 24

Ramon Jauregi

AUKEAKO GERENTEA



Bere bulegoko paisaia Musakolako kiroldegiko tenis pistek osatzen dute. 28 urte baino ez ditu eta zuzenbidea ikasi zuen Donostian. Elgoibartarra da eta bertan bizi da. Ezkongabea da eta ez du seme-alabarik.

1. Zein da zure horoskopoa? Leo.

2. Sinestuna zara? Bai.

3. Animalia bihurtzekotan? Lehoi.

4. Zure akats bat/gauza on bat? Burugogorra naiz/leialtasuna.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Aldizkarietako elkarrizketetan irtetzeak.

6. Amets bat? Pakea.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gosea.

8. Gertakizun historiko bat? II. Gerrate Mundiala.

9. Nor miresten duzu? Andregaiia.

10. Zeri diozu beldurra? Ebakuntzei.

11. Zertaz damutzen zara? Euskal Herritik kanpo pare bat urtez bizi ez izanaz.

12. Negar egin duzun azken aldia? Abenduan koadrilako lagun bat hil zitzaigunean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Trena eta herri autobusa.

14. Eta zuri? Dirua.

15. Lanbidez aldatzekotan? Merkatal marinela.

16. Arrasateko gustoko toki bat? Zaldibar.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Lan egitera atzerrira joatea.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Eskueta jausten zaidan edozein.

19. Gustoko janari bat? Bakailoa pil-pilean.

20. Liburu on bat? *El Club Dumas*.

21. Filmerik onena/txarrena? *Fargo/El Robobo de la joya*

22. Musika talderik onena/txarrena? AC-DC/Jesulin de Ubrique

23. Telebistako programarik onena/txarrena? TVE-2eko albistegiak/*Sorpresa sorpresa*

24. Egin dizuten oparirik politena? Aitonaren eraztuna.

25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Kirola egiten, lagunekin, irakurtzen.

26. Oporretarako toki bat? Pirinioak.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa.

28. Gomendio bat? Ez egin besteari zuri egitea gustatzen ez zaizuna.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Hiltzeagatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Ahalik eta toki gehien ezagutuko nituzke.



EUSKARAREN UNIBERTSOA JAURDUNALDIAK

IZENA EMATEKO TXARTELA

HelbideaHerriaKodea

TelefonoaFaxa.....Helbide elektronikoa

Elkarteren batean diharduzu?Zeinetan?

Elkartearen helbidea eta telefonoa:.....

Matrikula: 4.000 pta. Matrikula egiteko epea otsailaren 21an amaituko da. Jaurdunaldiak ostiralean egun osoz eta larunbata goizez izango dira: ostiralean bazkaritara gelditzeko asmoa baduzu matrikulako 4.000 pezetez gain 1.500 gehiago sartu eta gurutze bat jarri ondoko koadroan:

Diru sarrera egiteko kontua: **EUSKADIKO KUTXA 3035 0063 87 063 0032385**

Bidali matrikula orri hau eta ordain agiria honako helbidera:

EUSKARAREN UNIBERTSOA

Ategorrieta hiribidea 23, 1 esk. • 20.013 DONOSTIA

MARTXOAK
7 eta 8

Anporretarrak euren jatorriaren bila joan zaizkigu

Kataide - Anporreta mendia - Altamira

Anporreta? Ez duala Anporreta ezauketan? Baina zelan leikek hori! Hire abizenaren jatorrixe be ez jakitie!

- Ba ez aitxa, bizitza dana dauket aurretik hortarako.

- Bizitza dana! Bat batién pasauko jak eta hobe juau domeka honetan bertan buel-tatxo bat emutie.

Eta holaxe, Anporreta familiako aitxa-semiek, Kataide industrialdean, han bukaeran, Garratz baserriaren aurretik gorantz porlanezkue dan bidetik gora urten daue.

Zig-zag batzuk einez, gaur egungo "Kataide" baserri berri- ra heldu die. Han eitten da "Arrasateko txakolina", mahatsondoz beterik dau ingurua eta ikus daiteke geixau be jartze-ko lurre igualaute dauela.

Hantxe txakur txabola baten ondolik irteten dauen pistie gorantza hartu eta, bidegurutze danetan erdiko bidie jarraituz doiez aitxe-semiek.

- Beiratuik, horko horreik Aritz Amerikanuek dittuk! Oinartien pinu gazte batzuen peien izan dittuk eta oin pinuek bota eta haritzak majo jatozak gora!

- Bai bai aitxa, baina nahikue dauket arnasa hartzen, hau da aldapie!!!

Eta bai, hasiera horretan aldapa gogor samarra daukie; pinuditik zehar, gorantz gorantz, zig-zag pare bat egingo daue pistie bidezidortxo bihurtzen doien bitartien.

Berriro be pista garbi bat hartu ta ezkerrera lehenengo eta eskumara ostien hartu, eta pistie laister pinu gazte batzuen artien bidezidor bihurtuko jakie, gaina hartu arte. (Oinar-

tekue ordubetien). Eta hantxe:

- Beira Aritz, horko horrek, aizeak guztiz apurtu dauen pinudi horrek, Anporreta mendia osatzen jok.

- Goazen ba! Hemendik bidezidor hau jarraituz 10 minutu barru bertan egongo gare, ez aitxa?

- Bai seme!

Laister batién heldu die bota berri dan pinudi batién dauen tontorrera. Haren ezkerrién Udalatx agertu jakie, ikusgarri.

Hemendik botatako pinu-

diko pista Udalatxeruntz hartu eta, ezkerrera fanda, beste pista garbi eta eder batera joko daue.


- Ikusten dok plantazio hori guztioi Aritz?. Ointsu egin berri juek; Diputazioak erositako terrenoak ei dittuk, eta gauza benetan politxe ein juek, zuhaitz klase guzti honeik sartu jittuek eta: haritzak, pagoak, alertiak, "Douglas" izeiak, sekuoiak, e.a....; Benetan ikusgarrixe izango dok hau hemendik 40 bat urtera; nik ez juat ikusiko baina hik bai, gaur egun baino askosaz ederrago izan-

go dok gure abizena daraman Anporreta mendia, seme! (Oin artekue ordubete eta berrogei minutuen).

Pista jarraituko daue, ezkerrién behien Saburdi baserria ikusi eta, laister batién, Meatzereka gainien agerketako.

Mendialde horretatik pistak besterik gabe jarraitu eta "Loro" etxebarrira helduko die. Han porlanezko bidea hartu eta kanposantu berrietik, Altamirara jeitsi. Bi ordu terdi behar izan daue, lasai fanda.


Patxadan Taldea



■ Horoskopoa

- **Aries** Noren bedeinkazioa behar duzu zu zeu izaten hasteko?
- **Taurus** Isilik egoteak asko lagun-duko lizuke gehienetan.
- **Gemini** Ez geratu zure azukre koxkorrak zer esango dizun zain.
- **Cancer** Erokeriak egiteko garaia pasa da, orain lanari ekin.
- **Leo** Zinemako izarra izateko aukera gutxitxo duzu.
- **Virgo** Bizitza ez da jokoa. Kontuan izan hori.
- **Libra** Etxean baztertuta bizi zarela esaten duzu beti.
- **Scorpio** Erlojuari begira pasatzen duzu eguna. Norbaiti itxaroten?
- **Sagitaris** Ez erre, ez edan, jairik ez.... pasatu egiten zara.
- **Capricorn** Nor da gauero deitzen dizun pertsona hori?
- **Aquarius** Zure jateko gogoia etengo balitz, dendari gajoa!
- **Piscis** Progre itxura horrekin zaila duzu lana aurkitzea.

■ Gurutzegram




JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Alberto, modelo arrasatearra. 8. Aitorde. 10. Gironako ibilgailuetan. 11. Zeruaren kolorea hodeirik ez dagoenean. 12. Aranondoaren fruitu jangarria. 14. Abere-taldea. 15. Txanpon baten alde-
etako bat. 16. (Ald.) Kirol-lehiaketetan erabiltzen den ibilgailu txikia. 17. Helburu batez elkarturiko pertsona-taldea. 19. Nobelak idazten dituen pertsona.

Bertikalak 1. Mugaketa. 2. Agerian dagoena. 3. Tantaloa. 4. Benetako ez dena adierazten du. 5. Gehiegi. 6. Buruzagi. 7. Hunoen errege eta buruzagia. 9. (Ald.) Ertz, kantoi. 13. (Ald.) Bilatu aditzaren infinitibo. 16. (Ald.) Frantziako ibaia, Garonaren adarra. 18. Alfabetoko hamazazpigarren letren izena.

Horizontalak: 1. Mugapen. 2. Ageritko. 3. Ta. 4. Izun. 5. Lar. 6. Lider. 7. Atila. 9. (Ald.) Izkina. 13. (Ald.) Bila. 16. (Ald.) Lot. 18. Pe.
Bertikalak: 1. Matilla. 8. Ugazaita. 10. Ge. 11. Urdin. 12. Aran. 14. Eil. 15. Pil. 16. (Ald.) Kart. 17. Ekipo. 19. Nobelari.



Ehiztari ehizatua!

Gaur, San Valentin, egun aproposa da honako berri hau kaleratzeko:

Iñaki Uriarte Viguri, Arrasateko azken mutil-zaharretariko bat, maitasunaren sareetan erori da eta apirilaren 11n ezkontzen zaigu bere Bego maitearekin.

Badakizue koadrila, gerta itzazue jantzi dotoreak!

Zorionak zure lagun-informatzailearen partez!

Arrazakeria hizpide asteazkenean ATBn

Arrasateko gazte taldeek "Arrazakeriaren aurkako Gazte Astea" antolatuta dutela eta, asteazkenean Arrasate Telebistan mahainguru bat egingo da arrazakeria gaitzat hartuz.

Eider Otxoak moderatzaile lana egingo du eta mahainguruan antolakuntza batzordeko kideek eta SOS Arrazakeriako batek parte hartuko dute. Mahaingurua asteazkenean albistegien ondoren ikusi ahal izango da, 9.30etan. Ostegunean berriz, eguerdiko 1.30etan errepikatu egingo da.



Eider Otxoa, moderatzailea.



Play Back jaialdia osorik astearte gauean

Otsailaren 8ko Play Back jaialdia zuzenean ikusteko aukerarik izan ez zuenak edo besterik gabe berriz ikusi nahi duenak, horretarako aukera izango du ATBn. Arrasate Tele-

bistako lankideek osorik grabatu zuten jaialdia eta datoren asteartean botako da gaueko 9.30etan. Asteazkenean errepikatu egingo da eguerdian.

Arrasate Irratia FM 107.7

Egunero

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina
14.30 Bixau orduan

Astelehena

22.00 Caranseraia musika saioa.

Astearte

22.00 Euskal Festa.

Asteazkena

22.00 KK2A

Osteguna

21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

Ostirala

22.00 KGB informatika saioa

Larunbata

9.30 Jailarai umeendako saioa.
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.



Zoroklasikoak.

■ ATBko asteko programazioa

17 Astelehena	18 Astearte	19 Asteazkena	20 Osteguna	21 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Play Back jaialdia (Errep.)	13.30 Mahaingurua (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel (Errep.)
21.30 Mondrasport	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	19.15etan Kukaratxa Motel	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Play Back jaialdia.	21.30 Mahaingurua "Arrazakeria"		21.30 Astebete



Jende uholde itzela izaten zen sasoi batean Zerrajerako langileen irteera, argazkiak argi erakusten duenez. Lana bukatu eta tropelean irtetzen ziren bertan zebiltzanak, asko eta asko frontoira, beste asko txikiteora edo etxera.

Aste honetako argazkia 1921. urtean ateratakoa da. Orduan, Union Cerrajera taldeko lau lantegietan (Aretxabaletan, Mondragoen Zaldibarren eta Musakolan, Bergaran) 1.600 langile zeuden.

Argazkia atera zen urtean bertan 12 milioiko kapitala zuen Union Cerraje-

ra taldeak. Bere lantegietan zerrailak, arroparako plantxak, *Tortuga* markako estufak, goldeak, altzairua, eta laminatuak egiten ziren besteak beste. Zerrajerak indarra jasotzeko errekan 11 ur-salto zituen, eta udarako, lehortea nagusitzen zenerako bapozeko turbina bat zuen, 750 zaldikoa.

 Urtea: 1921.
 Argazkia: Zerrajerako katalogoa.
 Informazioa: Zerrajerako katalogoa.

**HIES
 EKIMENA**
 Astelehen, astearte
 eta ostiral
 Setatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

EGUZKIGRAF
 inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea 1-0-4
 Telefonoa: 791844
 FAX: 792941

beatriz
 oinetakoak
 eta poltsak

Erdiko kale, 11
 Tel.: 79 14 33
 ARRASATE



4 errealitate

1 erronka

Deba Garaian etorkizuna eraikitzen

almen
san frantzisko xabier
san viator
umezaintza

MATRIKULA
ZABALIK
otsailaren
17tik 28ra arte

zatoz ezagutzera

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza
- etengabeko hobekuntzako konpromezua
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak



Hezibide bailarari hezkuntz
egitura kooperatibo aberatsa
ematen dion elkarte



Renault Clio Campus 3 ate


1.250.000 pta.



***Gainera otsailaren 14tik 22ra arte
Automobilaren Feria Handia***

Auto berriak • 0 kilometro • Ia berriak • Aukerako autoak

Bila ezazu zure aukera Meca Tailerrean.
Merkatuko eskaintza onenak proposatzen dizkizugu.



San Andres auzoa • Tel.: 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE